

BESTELAKO XEDAPENAK

SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIA

4082

EBAZPENA, 2024ko abuztuaren 6koa, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, 2024. urterako «Euskadiko enpresen konektagarritasunerako» laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzea, argitaratzea eta deialdia egitea agintzen duena. Programaren 1. lerroa Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dago.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoak («SPRI»), Euskal Autonomia Erkidegoan industria eta enpresa arloko jarduera bultzatzera bideratutako jardunbideak bideratzeko eta lehiakortasuneko bektore gisa honako hauen arteko trantsizioak Euskadiko enpresetan txertatzen laguntzeko ardura du: teknologia digitala, energia-ingurumena eta demografia-gizartea. Horretarako, enpresen jarduera ekintzailean inbertsioa, berrikuntza, nazioartekotzea eta jarduera sustatzea bultzatzen ditu.

Horri dagokionez, Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia bultzatzera bideratutako zenbait ekintza garatu ditu SPRIk. Ekintza horien artean, aipatzekoak dira EAEko enpresetan eraldaketa digitala eta zibersegurtasuna bultzatzera bideratutako laguntza-programa anitzak. Programa horiek babesa ematen die honako alor hauekin lotutako proiektuei: Zibersegurtasuna eta Komunikazio Industrialak, Cloud Computing, datuen Analitika Aurreratua eta Business Intelligence, Robotika Konektatua, Ikuspegi Artifiziala eta Sentsorika. Enpresetan proiektu horiek ezartzeko, gero eta konektibitate, datuen biltegitate eta prozesamendu handiagoa behar da. Hala, enpresek ezingo dituzte balio erantsiko zerbitzuak eskuratu (cloud-zerbitzuak, datuak urrunean ostatatzea, kudeaketa banatuko aplikazioetarako sarbidea, informazioaren segurtasun-kopiak, etab.), baldin eta ez badute banda zabal ultralasterreko zerbitzuak kontratatzeko aukerarik, edota ez badute gaitasun handiko, latentzia txikiko eta ekipo nahiz gailu asko konektatzeko aukera eskaintzen duen barneko komunikazio-sarerik.

Hori horrela, Europako Batzordeak «Europako Gigabit Gizartearentzako Konektagarritasuna» izenekoaren oinarriak ezarri ditu, eta proposatzen du digitalki intentsitate handia duten enpresek 1 Gbps simetrikoko Interneterako konexioak izan behar lituzketela 2025erako.

Horren ondorioz, Laguntza Programa hau diseinatzean, lehentasunezko helburu gisa ezarri dugu abiadura handiko barneko komunikazio-sare elektronikoak instalatzeko inbertsioak ahalbidetzea, 1 Gbps-ko abiaduran zerbitzuak eskaini ahal izateko, baita banda zabal ultralasterreko zerbitzuak Euskadiko enpresetara zabaltzea ere, kokaleku dituzten industrialde edo eremu geografikoetan operadoreen telekomunikazio-azpiegiturak falta direlako zerbitzu horiek ez dituzten enpresetara, hain zuzen ere.

Bestalde, Dirulaguntzen Erregimena Arautzen duen 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legeak (DEAL) 7.2.a) artikuluan eskatzen du Lege horrek ezartzen duen dirulaguntzen kudeaketa eta esleipena hainbat printzipioen arabera egiteko, besteak beste, publizitate-printzipioaren arabera. Era berean, DEALen 8.3 artikulua ezartzen du dirulaguntza edo diruz lagundutako programa mota bakoitzaren oinarri arautzaileak argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Hori guztia dela eta, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2024. urterako «Euskadiko enpresen konektagarritasunerako» laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea. Horien edukia atxikita dago ebazpen honen eranskinean. Programaren 1. lerroa Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dago.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea 2024ko «Euskadiko enpresen konektagarritasuna» programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau. Programaren 1. lerroa Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dago.

Hirugarrena.– Ebazpen honen kontra, berraztertze errekurtsoa jar daiteke SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren Zuzendaritza Nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa administrazioarekiko epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2024ko abuztuaren 6a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
AITOR URZELAI INZA.



ERANSKINA

2024. urterako «Euskadiko enpresen konektagarritasunerako» laguntzen programako oinarri arautzaileak. Programaren 1. lerroa Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dago.

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren menpeko erakunde publikoak (SPRI), zenbait ekintza gauzatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) industria, lehiakortasuna, enpresen arteko lankidetzara, ikerketa eta, besteak beste, enpresen garapena sustatzeko.

Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategian (EEDA2025) definitutako jardute-politikekin bat datorren tresna bat da «Euskadiko enpresen konektagarritasunerako» laguntzen programa.

Hortaz, Dirulaguntzen programa honen lehentasuna da abiadura handiko barneko komunikazio-sare elektronikoak instalatzea, EAEko enpresei 1 Gbps-ko abiaduran eskaintzeko zerbitzuak, eta banda zabal ultralasterraren zerbitzuak zabaltzea.

Adierazi behar da programa jasota dagoela erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, Administrazio Kontseiluak 2023ko abenduaren 20an 2024ko ekitaldirako hartutako erabakiaren bidez onetsitakoan (2024ko martxoaren 27an eta ekainaren 17an aldatua) eta Planeko helburu hau betetzeko ekarpena egin duela: «Banda zabal ultralasterraren sareak zabaltzea zerbitzu mota hori ez duten Euskadiko enpresetara, kokatuta dauden industrialdeetan edo eremu geografikoetan ez dagoelako telekomunikazioko operadoreen azpiegiturarik, eta, halaber, banda zabal ultralasterraren sareak zabaltzen laguntzea (FTTH- Zuntz Optikoa, Gigabit Ethernet, WiFi 6 edo 5G) enpresetan edo enpresen eraikinetan, segundoko 1 Gigabiteko (Gbps) abiaduran konektatutako makinak eta sentsoreen sareak hedatu ahal izateko».

Halaber, kontuan izan behar da Programako 1. lerroa Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (988/2021 ED) 2021eko azaroaren 16ko 988/2021 Errege Dekretuan (autonomia-erkidegoentzako eta Ceuta eta Melilla hirientzako industrialdeetako eta logistika-zentroetako konektagarritasuna indartzeko ekintzak exekutatzeko dirulaguntzen esleipen zuzena onartzen duena) ezarritako xedapen arautzaileen mende egongo dela, eta baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan (520/2024 ED) 2021eko azaroaren 16ko 988/2021 Errege Dekretua (autonomia-erkidegoentzako eta Ceuta eta Melilla hirientzako industrialdeetako eta logistika-zentroetako konektagarritasuna indartzeko ekintzak exekutatzeko dirulaguntzen esleipen zuzena onartzen duena) aldatzen duten 2023ko abenduaren 19ko 1136/2023 Errege Dekretuaren eta 2024ko ekainaren 4ko 520/2024 Errege Dekretuaren mende ere. Dekretu horren helburua da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 15. Osagaiaren C15.I2 «Erreferentziazko zentroetan, eragile sozioekonomikoetan eta sektorearen digitalizazioa sustatzeko proiektuetan konektagarritasuna indartzeko ekintzak» inbertsioa partzialki exekutatzeko, eta, tartean, industrialdeetan eta zentro logistikoetan konektagarritasuna indartzeko ekintzak gauzatzea (UNICO-Industria eta enpresak programa). Hortaz, jarduera-lerro horri dagozkion dirulaguntzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren mende egongo dira, baita Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarentzako Espainian ezartzen diren kudeaketarako, jarraipenerako eta kontrolerako barne-araudi aplikagarriaren mende ere, zehazki, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatzeko premiazko neurriei buruzko 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren mende. Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan, SPRIk dagokion lankidetzara-hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailarekin.

2024ko irailaren 2a, astelehena



1. artikulua.– Xedea.

Programaren helburua da gaitasun handiko komunikazio elektronikoen sarea instalatzen laguntzea, zerbitzuak 1Gbps-ko abiaduran eskaini ahal izateko, eta, halaber, banda zabal ultralasterreko telekomunikazioen zerbitzu aurreratuak kontratatzea hori hornitzeko azpiegitura berria behar duten lekuetan.

1. lerroari dagokionez, C15.I2 «Erreferentziazko zentroetan, eragile sozioekonomikoetan eta sektorearen digitalizazioa sustatzeko proiektuetan konektagarritasuna indartzeko ekintzak» inbertsioaren barruan dagoen jarduketa da, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 15. osagaia osatzen du. Halaber, EAEk CID #238 Helburuaren barruan egin beharreko 37 xede-jarduketaren mugarriari ekarpena egiten dio (gutxienez 1.600 industrialde eta enpresa-arlo txikik 1-Gigabiteko konexio-abiadura lortzea). Jarduketa horren helburuak betetzeko ekarpena egingo du, suspertze- eta erresilientzia-mekanismoa eta Europako eta Estatuko Suspertze Plana arautzen dituen araudiaren arabera.

Laguntza hori, batez ere, laguntza-lerro hauen bidez gauzatuko da:

– 1. lerroa: abiadura handiko komunikazio elektronikoen sareak instalatzeko dirulaguntza, EAEn kokatuta dauden enpresa-jarduerako zentroek 1 Gbps abiadurako zerbitzuak eskaini ahal izateko, 988/2021 Errege Dekretuaren 12.1.c) artikulua.

– 2. lerroa: banda zabal ultralasterreko sareak, kokaleku dituzten industrialde edo eremu geografikoetan komunikazio elektronikoen operadoreen telekomunikazio-azpiegiturak falta direlako, zerbitzu horiek kontratatzeke aukerarik ez duten EAEko enpresetara helaraztea.

2. artikulua.– Laguntzen izaera.

1.– Laguntza horiek behar bezala jasotako laguntzen ondoz ondoko esleipenaren arabera emango dira. Banaka eta modu ordenatuan ebatziko dira, oinarri hauetan zehaztutako dokumentazio guztiarekin eskaera osatu den unea kontuan hartuta.

2.– Programa hau aplikatzearen ondorioz emandako laguntzek 2023ko abenduaren 13an Batzardeak onartutako (EB) 2831/2023 Erregelamenduak jasotako garrantzi txikiagoko edo de minimis laguntza izaera dute. Aipatutako araudia de minimis laguntzekin lotuta Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuak jasotzen dituen 107 eta 108. artikulua aplikatzeari buruzkoa da ((EB) 2831/2023 Erregelamendua).

1. lerroari dagokionez, oinarri arautzaile hauen babespean emandako dirulaguntzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez finantzatu dira. Europako funtsekin finantza daitezkeen dirulaguntza horien tramitazioari eta esleipenari Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatzeko premia neurriak onartzen dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuko zaio (12.1.c) artikulua lerroa), aplikagarria den gainerako araudia alde batera utzi gabe.

3.– Programa honen bidez ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira.

4.– Programa honen baitan emandako dirulaguntzak ez daude esportatutako kopuruei, banaketa-sare bat ezartzeari eta ustiatzeari, edo esportatzeko jarduerari lotutako beste gastu korrante batzuei zuzenean lotuta.



3. artikulua.– Baldintzak eta definizioa.

Programa honen helburuetarako definizio hauek ezarri dira:

1.– Enpresa txikiak eta ertainak (ETEak), (mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EB Batzordearen Gomendioaren arabera).

a) Mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainen (ETEak) kategoria honako hauek osatzen dute: 250 langile baino gutxiago dituzten eta urtean 50 milioi euroko negozio bolumena gainditzen ez duten enpresak, edo urteko balantze orokorra 43 milioi eurokoa baino handiagoa ez dutenak.

b) ETEen kategorian, enpresa ertainak dira 50 eta 249 langile artean dituzten eta urtean 10 eta 50 milioi euro arteko negozio-bolumena duten enpresak, edo 10 eta 43 milioi euro arteko balantze orokorra dutenak.

c) ETEen kategorian, enpresa txikiak dira 50 langile baino gutxiago dituzten eta urtean 10 milioi eurotik beherako negozio bolumena duten enpresak edo 10 milioi eurotik beherako urteko balantze orokorra dutenak.

d) ETEen kategorian, mikroenpresak dira: 10 langile baino gutxiago dituzten eta urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra 2 milioi eurokoa baino handiagoa ez dutenak.

e) Langile kopurua, zenbateko finantzarioak eta erreferentzia-epaia zehazteko garaian, Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko (EB) 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritakoa aintzat hartuko da. Erregelamendu horrek zenbait laguntza-kategoria barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen ditu Itunaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

2.– Enpresa-jardueren zentroa: jarduera ekonomikoren bat egiten duten fabrikak, instalazioak, zentroak eta bulegoak dira.

3.– Jarduketaren eremu materiala: industrialdeak eta zentro logistikoak, baita enpresak kontzentratzen diren beste eremu batzuk ere, hala nola enpresa-parkeak, enpresen haztegiak edo parke teknologiko eta zientifikoak eta enpresen kontzentrazioarako beste eremu batzuk. Hala ere, laguntzak mikroenpresentzat, enpresa txikientzat eta ertainentzat badira (ETEak), 2003ko maiatzaren 6ko Europar Batzordeko Gomendioan definitzen denaren arabera, EAEko edozein eremu geografikotan eman ahal izango dira.

4.– 1 Gbps-ko abiadurako zerbitzuak emateko gai diren abiadura handiko komunikazio-sare elektronikoak: enpresaren ingurunean gutxienez 1 Gbps-ko komunikazioak izateko aukera ematen duten sareak dira, eta Gigabit Ethernet, 5 G, WiFi-6 eta antzeko teknologiak erabiltzen dituzte.

4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– 2024an dirulaguntzak esleitzeko Programa honi bideratutako baliabide ekonomikoak 2.486.500 eurokoak dira eta honela banatzen dira kontuan hartutako bi lerroentzat:

– 1. lerroa: Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoari industrialdeetan eta zentro logistikoetan konektagarritasuna indartzeko zenbait ekintza egiteko esleitutako dirulaguntza zuzenetik 2.326.500 euro, azken aldiz 520/2024 EDk aldatutako 988/2021 EDren arabera (Eraldaketa Digitalerako Ministerioaren UNICO- Industria eta Enpresak Programa). Adierazitako hornikuntza ekonomikoa Europako Suspertze Tresnatik eratorritako baliabide finantzarioen bidez finantzatzen da («Next Generation EU»), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez.

2024ko irailaren 2a, astelehena



– 2. lerroa: 160.000 euro, SPRIren aurrekontuetan horretarako ezarritako hornikuntzetatik eratorriko dira, eta 2024rako Euskal Autonomia Erkidegorako Aurrekontu Orokorretan egongo dira sartuta.

2.– Funtsak mugatuak direnez, programa honen bitartez lortu nahi da ahalik eta denbora tarte txikiena igarotzea laguntza eskatzen denetik ematen den arte; horrenbestez, espedientea osatua dagoenean eta era ordenatuan egingo da esleipena. Programaren guztizko zenbatekoa gainditzen duten laguntzei ezezkoa emango zaie, ebazpen baten bidez.

3.– Programarako funtsak agortzen badira, programari amaiera emango zaio, eta horren berri emango du SPRIren zuzendari nagusiak sozietatearen web orrian (www.spri.eus) eta EHAA argitaratuko den ebazpen baten bidez.

4.– Behin aurrekontu-kreditua bukatuta, ezingo da beste dirulaguntzarik eman eta, hori dela eta, aurkeztu diren baina ebazteke dauden eskaerak ezetsi egingo dira.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak eta izaera hori lortzeko eskakizunak.

1.– Abiadura handiko komunikazio-sare elektronikoen baten instalaziora bideratutako dirulaguntzen erakunde onuradunak (1. lerroa).

Jarduketaren eremu materialean edo, hala badagokio, alboko industria-eremuetan, zein Kode Zibilaren 396. artikuluan eta Propietate Horizontalari buruzko 1960 uztailaren 21eko 49/1960 Legearen korrelatiboetan ezarritako jabetza horizontaleko erregimenaren mende dauden jabeen komunitateetan kokatutako ondasun higiezinaren titularrak edo errentariak diren enpresa txiki eta ertainek (ETEak) jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak, 6. artikuluan deskribatutako diruz lagundu daitezkeen jarduerak exekutatzeko proiektuak aurkezten badituzte.

Hori guztia, baldin eta:

a) Jarduera-zentro bat badute EAEn.

b) Jarduketa-eremuaren barruan kokatutako leku batean exekutatzen badute proiektua. Aurkeztutako proiektuak inpaktua izan beharko du kokapen horretan. Nolanahi ere, EAE barruan egon beharko da kokatuta.

c) Euskadiko Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren dagokion epigrafean alta emanda badaude.

2.– Banda zabal ultralasterraren sareak hedatzeko dirulaguntzaren erakunde onuradunak (2. lerroa).

6. artikuluan (2. lerroako) deskribatutako diruz lagundu daitezkeen jarduketak exekutatzeko proiektuak aurkezten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek jaso ahal izango dituzte dirulaguntzak.

Hori guztia, baldin eta:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-zentro bat badute. Hain zuzen ere, aurkeztutako proiektuak zentro horretan izan beharko du inpaktua eta bertan egin beharko da diruz laguntzekoa den jarduera.

b) Proiektua jarduketa-eremuaren barruan gauzatzen badute, betiere EAEn barruan, eta pertsona fisiko edo juridikoak isolatuta baldin badaude gutxienez segundo simetrikoko bakoitzeko sei hurbil megabitetako (600 Mbps) banda zabaleko zerbitzuak eskaintzen dituzten zerbitzuetatik, zerbitzu horiek kontratatuzko aukerarik ez dutelako, edo telekomunikazioen azpiegiturarik ez dagoelako.

c) Euskadiko Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren dagokion epigrafean alta emanda badaude.



3.– Bi lerroetan, ezingo dituzte deialdi honetan aurkezten diren dirulaguntzak jaso:

a) Sektore publikoren batekoak edo sektore publikoaren parte direnek, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalerako arauen arabera.

b) DEALen 13. artikuluan edo 2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 (DLO) artikuluan aurreikusten den egoeraren batean dauden erakundeek, aplikagarria den heinean.

Zehazki, eskatzaileek zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzako betebeharrak eta dirulaguntzen itzulketen betebeharrak betetzen dituztela aintzat hartuko da Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak 2023ko otsailaren 13an emandako Aginduak ezarritako kasuetan. Hala, dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketan eguneratuta dagoela aintzat hartuko da zorrak zatikatuta edo atzeratuta eta bermatuta daudenean edo itzultzeko dagokion ebazpenaren inpugnazioa bertan behera uztea adostu bada.

c) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpokoa dela edo barne-merkatuarekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak errekuperatzeko agindu baten mende daudenean.

d) LGTBifobia egin, bultzatu edo sustatzen dutenek, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

e) 1. lerroaren kasuan soilik, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen ordainketa-epreak betetzen ez dituztenek.

4.– Laguntza-eskaera aurkezten den unetik hasi eta likidatu arte bete beharko dira aurreko ataletan laguntzen onuradun izateko aipatutako eskakizunak.

5.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako alderdiak modu honetan egiaztatuko dira:

a) SPRIk ofizioz egiaztatuko du honako eskakizunak betetzen direla:

- EAEn jarduera-zentro bat dutela, zeinetan proiektuak eragina izango duen.
- Euskadiko Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren epigrafe industrialean alta emanda daudela.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela.

Dena den, eskatzaileak uko egin diezaioke ofizioz egiaztatzeari. Hala bada, kasu bakoitzean eskumena duen organoaren administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko ditu.

b) Gainerako baldintzak 12. artikuluan adierazitako dokumentazioa aurkeztuta edo erantsitako adierazpenaren bidez egiaztatuko dira, eta adierazpen hori eskaerak prozesatzeko aplikatiboan txertatzeko garaian Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikulua bete beharko da, baita DEALen 13.9 artikuluan aurreikusitako eskakizunak ere. Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatutako baldintzen egiazkotasuna ikuskapen bidez edo dokumentazioa eskatuz egiaztatu ahal izango da, egoki denean.

c) Abiadura handiko komunikazio elektronikoetarako sare pribatua instalatzera bideratutako laguntzaren kasuan (1. lerroa) enpresaren ETE izaera hori datuen bidez ziurtatuko da, hau da, enpleguaren urteko datuak, negozioaren bolumena eta negozioaren balantze orokorra, baita enpresari lotutako edo bazkidedutako gainerako enpresena eta talde osoarena ere. Horren barruan, talde osoaren antolakuntza-eskema gehitu beharko da, parte-hartzeekin eta enplegu-datuekin, ustiapen-eta balantze-kopuruekin, eta hori guztia dirulaguntzak eskatu aurreko ekitaldiei dagokienez, halakorik izanez gero.



d) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan soilik, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen ordainketa-epeak bete direla ziurtatuko da, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez edo ROACen izena emandako auditorearen ziurtagiriaren bidez.

6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gauzatzeko epea.

1.– Hauek izango dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

1. lerroa: abiadura handiko komunikazio elektronikoen sare pribatua sortzeko ekipamenduak eta azpiegitura erostea, instalatzea eta konfiguratzea, 1 Gbps-ko abiaduran eskaini ahal izateko zerbitzuak, eskatzailearen instalazioetan erabilitako teknologia edozein izanik ere. Jarduketa horiek egiteko gehieneko epea 2024ko abenduaren 31 izango da.

2. lerroa: enpresek banda zabal ultralasterreko zerbitzuak (gutxienez, 600 Mbps simetrikokoak) kontratatzeke aukera emango duten komunikazio elektronikoetarako sareen hedapenerako proiektuak. Proiektu horiek, hasten direnetik, beranduenera jota, 12 hilabeteko epean gauzatu dira. Nolanahi ere, emakidaren urtearen barruan hasi beharko da.

Ez dira diruz laguntzeko moduko jarduketatzat hartuko eremu geografiko jakin batean sarea hedatzeko proiektuak, baldin eta eremu horietan EAE baitan helburu bererako emandako laguntzak emanda badituzte.

Operadoreak enpresa onuradunari eskaintzen dizkion eta dirulaguntzaren xede diren telekomunikazio-zerbitzuek sare publikoko banda zabal ultralasterreko zerbitzuekin bat etorri beharko dute.

2.– Inola ere ez da diruz lagunduko Europar Batasuneko kide diren beste herrialde batzuetara edo hirugarren herrialdeetara esportatzea; eta, ondorioz, programa honen testuinguruan diruz lagundutako dirulaguntzek ezingo dute zuzenean lotuta egon esportatutako kantitateekin, banaketa-sare bat martxan jarri eta ustiatzearekin, edo esportazio-jarduerarekin lotutako beste ohiko gastu batzuekin.

3.– Programa honen barruan emandako dirulaguntzek ezingo dute baldintzatu inportatutako produktuen ordez bertako produktuak erabiltzea.

7. artikulua.– Gastu hautagarriak eta gastu hautagarriei aplikatzeko baldintzak (1. lerroa).

1.– Dirulaguntzak 6. artikuluan deskribatutako diruz lagundu daitezkeen jarduketak egiteko beharrezkoak diren inbertsioak eta gastuak finantzatzeko erabiliko dira.

Zehazki, proiektuari lotutako kontzeptu hauek dira inbertsio eta gastu hautagarriak:

- a) Azpiegiturak eta obra zibila.
- b) Ekipamendua eta beste materialak.
- c) Langile propioen gastuak.
- d) Ezartzen duen pertsonaren gastuak.
- e) Proiektuari egotz dakizkiokeen beste kostu orokor edo zeharkako batzuk, esaterako, instalazioari dagokion txosten tekniko ziurtatzailea egitea.

2.– Diruz lagundu daitezkeen gastuen barruan, DEALen 30.8 artikuluaaren arabera, zeharkako zerga aplikagarriak onartuko dira onuradunak berreskuratu edo konpentsatu ezin baditzake. Hala ere, diruz lagundu daitezkeen gastuetatik kanpo geratzen da balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa).



3.– Laguntza-eskaera SPRIn aurkeztu ondoren eta proiektua gauzatzeko ezarritako epean zehar sortutako edo fakturatutako gastuak onartuko dira. Halaber, laguntza-eskaera aurkeztu aurretik sortu edo fakturatutako gastuak ere onartuko dira, proiektua 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi bada.

4.– DEALen 30.4.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, dirulaguntzaren xede diren azpiegiturak eta ekipoak proiektuaren xede zehatzera egokituta egon beharko dira bost urtez gutxienez, proiektua amaitzen denetik zenbatzen hasita edo bere bizi erabilgarriaren amaierara arte, 5 urtetik beherakoa baldin bada.

5.– Ekipoen eta telekomunikazio-sistemen instalazioa eta mantentze-lanak arautzen dituen Erregelamenduaren (2010eko martxoaren 5eko 244/2010 Errege Dekretuak onartutakoa) 3. artikulua aipatzen duen telekomunikazioko enpresa instalatzaileen erregistroan izena emanda dauden enpresa instalatzaileek egin beharko dituzte jarduketak, eta telekomunikazioko enpresa instalatzaileen erregistroan «B» edo «F» motan egon beharko dira izena emanda, aipatutako Erregelamendua garatzen duen 2010eko apirilaren 29ko ITC/1142/2010 Aginduak ezarritakoaren arabera.

6.– Dirulaguntzaren xede diren jarduketek aplikagarria den indarreko araudia bete beharko dute eta beharrezko lizentzia eta baimen administratiboak izan beharko dituzte, hala eskatuz gero. Gainera, I. eranskinean C15. I2 inbertsioa exekutatzeke ezartzen diren baldintza espezifikoak bete beharko dituzte.

7.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza hauen erakunde onuradunak jardueren % 50era arte azpikontratatu ahal izango du partzialki.

Horretarako, 31. artikuluan eta bere garapenerako araudian xedatutakoa aplikatuko da. Organo kontzesio-emaileak balizko azpikontratisten identifikazio-datuak gorde beharko ditu funtsen azken hartzaile gisa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, erakunde onuradunak azpikontratatzaileen berri eman beharko dio dirulaguntzaren organo kontzesio-emaileari idatziz, eta bere kontratek eta/edo azpikontratek interes-gatazkarik ez dutela adierazi beharko du.

Azpikontratazio guztietan bete beharko dira DEALen 30. eta 31. artikulua, DLOren 29. artikulua eta DLOren araudia onartzen duen 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 68. Artikulua, eta atal honetan aurreikusitakoa. Halaber, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legea aplikatuko da, Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako erregimen juridikora ekartzekoa, baldin eta dirulaguntzak exekutatzean lege horren mende dauden kontratuak gauzatzen badira.

Azpikontratazioa dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20 baino gehiagokoa bada eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, idatzizko kontratu bat egin beharko da aldean artean eta dirulaguntza esleitzen duen organoak baimendu duela aintzat hartuko da esleipenaren ebazpena argitaratzen denean. Nolanahi ere, kontratuetan aipatuko da aldean artean loturarik dagoen ala ez, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Araudiaren 68.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Azpikontratazioa ez bada hasten dirulaguntza esleitzen den urtean eta onartzerako unean azken hartzaileak ez badu kontratista hautatu, esleipenaren ebazpenak baldintzatuko du aurreko atalean adierazitako kopuruak gainditzen dituen azpikontratatorako baimena, sinatu beharreko kontratuan DEALen 30. eta 31. artikuluetan, DLOren 29. artikuluan eta DLOren 68. artikuluan ezarritakoa errespetatzeko. Horretarako, azken hartzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du proposatutako dirulaguntza onartzeko unean. Kontratua eta derrigorrezko eskaintzak dirulaguntza justifikatzeko unean igorriko dira.



Azpikontatzaileak laguntzaren onuradun izateko eskatzen diren baldintza berberak bete beharko ditu dirulaguntza jaso ahal izateko. DEALen 31.7 artikuluan zehaztutako egoeraren batean dauden pertsona edo erakundeekin ezingo da azpikontatzaiziorik egin. Nolanahi ere, oinarri hauen esparruan, diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira DEALen 30. artikuluan jasotakoak.

8.– 1. lerroaren kasuan, oro har, MRRk egiturazko aldaketa bat dakarten eta errepikakorrak ez diren gastuak soilik finantzatu beharko dira. Gastu horiek inpaktu iraunkorra izan beharko dute erresilientzia ekonomiko eta sozialean, jasagarritasunean, digitalizazioan, epe luzeko lehiakortasunean eta enpleguan. Lerro horri dagozkien dirulaguntzek 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37. artikuluaekin bat datozen jarduketak soilik finantzatu beharko dira. BEEPren esparru arautzailearen arabera hautagarriak diren jarduketak finantzatu ahal izateko. Ezingo dira diruz lagundu Europar Batasunak klimaren eta ingurumenaren arloan dituen arauak eta lehentasunak, eta «kalte adierazgarriak ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) erabat errespetatzen ez dituzten proiektuak, 2020ko ekainaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2020/852 Erregelamenduko 17. artikulua araberako. Erakunde onuradunek bermatuko dute hori betetzea.

8. artikulua.– Gastu hautagarriak eta gastu hautagarriei aplikatzeko baldintzak (2. lerroa).

1.– Gastu hautagarritzat hartuko da komunikazio elektronikoen operadoreak enpresari egotzitako alta bakarreko kuota. Aurreko definizioak barne hartzen ditu sarea hedatetik eratorritako gastuak, telekomunikazioen operadoreari sarea hedatzen laguntzen dioten telekomunikazio-zerbitzuen hornitzaileek eginak.

Alta-kuotaren gastuak kontuan hartzeko, kontratatutako zerbitzuen hileko tarifak lehiakide baten hedapena dagoen eremuetan aplikatutako tarifen antzekoak izan behar dira.

2.– Laguntza-eskaera SPRIn aurkeztu ondoren eta proiektua gauzatzeko ezarritako epean zehar sortutako edo fakturatutako gastuak onartuko dira. Halaber, laguntza-eskaera aurkeztu aurretik sortu edo fakturatutako gastuak ere onartuko dira, proiektua 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi bada.

3.– Fakturan aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga ez da gastu hautagarria izango.

4.– Gastu hautagarriak baloratzeko, irizpide hauek izango dira kontuan:

a) Oinarri hauen 6. artikuluan deskribatutako diruz lagundu daitezkeen jardueretatik etorritako gastuak izan behar dute.

b) Deskontuak eta antzekoak izanez gero, gastua gutxitu egingo da.

c) Gastu hautagarriaren balioespena kutzako irizpidearen arabera izango da.

d) Antzeko proiektuen batez besteko gastuekin alderatuta, proiektuaren gastu-aurrekontua handiegia dela irizten bada, gastu hautagarrien oinarria murriztuko da, gastu egokitzat eta proportzionatutaz jotzen den zenbatekoaren arabera.

5.– DEALen 30.1 artikuluan aurreikusten den moduan, diruz lagundu daitezkeen gastuak eskuratzeko kostua ezingo da inolaz ere merkatuaren balioa baino altuagoa izan. Alde horretatik, antzeko proiektuen batez besteko gastuekin alderatuta, proiektuaren gastu-aurrekontua handiegia dela irizten bada, gastu hautagarrien zenbatekoa murriztuko da, gastu egokitzat eta proportzionatutaz jotzen den zenbatekoaren arabera.

6.– DEALen 31.1 artikuluan eta DLOren 29. artikuluan eta 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 68. artikuluan (horrek onartzen du DLOren araudia «DAO») ezarritakoaren arabera, onuradun batek azpikontatatu edo kontratatatu egiten du, baldin eta hirugarren batzuekin hitzartzen badu diruz lagundu nahi den jarduera osorik edo partzialki egitea. Kontzeptu horretatik kanpo



geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz gauzatzeko egin beharreko gastuen kontratazioa. Hori horrela, azpikontratazioa edo hirugarrenen kontratazioa diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 100era iritsi ahal izango da, eta diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa edo hirugarren kontratazioa aplikagarri izango dira aipatutako artikuluetan jasotako gainerako aurreikuspenak.

7.– DEALen 30.3 artikuluan aurreikusitakoa betetz, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak gaintu egiten baditu sektore publikoko kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiak kontratu txikirako ezarritako kopuruak, eta betiere hirugarrenen kontratazioaren bat baldin badago, onuradunak gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu beharko ditu lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, bere ezaugarriak bereziak izateagatik, merkatuan ez badago lana egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko behar beste erakunde, edo gastua dirulaguntza eman baino lehen egin bada.

Dirulaguntzaren justifikazioan edo eskaeran aurkeztutako eskaintzen artean aukeratzeko, efizientziaren eta ekonomiaren irizpideak hartuko dira kontuan, eta abantailarik handiena duen proposamen ekonomikoa aukeratzeko ez bada, berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

8.– Nolanahi ere, oinarri hauen testuinguruan diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira DEALeko 30. artikuluekin bat datozenak.

9.– Telekomunikazio-zerbitzuaren hornitzaileek sektore pribatuko pertsona fisikoak edo juridikoak izan behar dute, eta behar bezala gaitutako operadore izan behar dute 2022ko ekainaren 28ko Telekomunikazioen 11/2022 Lege Orokorraren 6. eta 7. artikuluetan ezarritakoa betetz. Izan daitezke pertsona fisiko edo juridiko horien taldeak ere, eta horrela bada, onartuko da metatzea behar bezala gaitutako komunikazio elektronikoen operadoretzat hartzeko baldintzak betetzeko bide gisa.

9. artikulua.– Laguntzen modalitatea eta zenbatekoa.

Deialdi honetako laguntzak dirulaguntza gisa egituratuko dira.

1.– Abiadura handiko komunikazio elektronikoen sare pribatua (1 Gbps-koa gutxienez; 1. lerroa) instalatzera bideratutako dirulaguntzaren kasuan, gehieneko intentsitateak ezingo du gaintu gastu hautagarri guztien kostuaren % 80, eta 100.000 euroko muga izango du dirulaguntza-eskaera bakoitzeko. Proiektu bakoitzeko eska daitekeen gehieneko dirulaguntzak ezingo du jarduketa-lerro horretarako esleitutako dirulaguntzaren eta zuzkiduren gehieneko intentsitatea gaintu.

2.– Banda zabal ultralasterraren sareak zabaltzeko dirulaguntzak (2. lerroa) gastu hautagarrien % 90era bitarte hartuko du kontuan, eta 30.000 euroko muga egongo da dirulaguntzaren eskaera bakoitzeko.

10. artikulua.– Laguntzak metatzea eta mugak.

1.– 1. lerroari dagokionez, dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio publiko, organismo edo erakunde publikoren beste programa edo tresna batzuen dirulaguntzekin, Estatukoak zein nazioartekoak izan, batez ere Europar Batasunekoekin. Betiere, dirulaguntza horrek ez baditu kostu berberak barne hartzen (2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 9. artikuluan aurreikusitako finantzaketa ez bikoizteko printzipioaren arabera). Gainera, 988/2021 Errege Dekretuaren 12.1 c) artikuluan aurreikusitako diruz lagundu daitekeen jarduera-lerroko dirulaguntzak direnez, bateragarriak izango dira, betiere, Batzordearen EB 2831/2023 Erregelamenduak enpresentzat edo merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskainiz jarduera ekonomikoren bat egiten duten hartzaileentzat ezarritako mugak gaintuzten ez badituzte, metatuta.



Agindu honetako 1. lerroan araututako dirulaguntza exekutzeko eskuragarri dauden funtsek etiketa klimatikoaren eta digitalaren betebeharrak betetzea errespetatuko dute, ehuneko 0 eta ehuneko 100eko portzentajearekin hurrenez hurren, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoaren arabera. Hortaz, ezin da trantsizio berdearentzako ekarpen espezifikorik espero, baina bai eraldaketa digitalerako ekarpen osoa.

2.– 2. lerroko laguntzak eskuratzen dituzten erakundeek sarrera publiko edo pribatuko beste laguntza bateragarri batzuk edo Europako Erkidegoko beste finantzabide batzuk eskura ditzakete, betiere gastu hautagarrietarako gehieneko laguntzaren intentsitatea errespetatzen badute.

3.– Laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango erakunde onuradunak garatzeko asmoa duen jardueraren kostua baino handiagoa, soilik laguntza hori aintzat hartuta edo edozein administraziok edo horien sektore publikoek xede bererako emandako beste laguntza batzuk edota bestelako sarrera mota batzuk gehituta. Baldin eta beste laguntza publiko batzuk eta programa honen bidez emandakoa metaturik lortzen den zenbatekoak gainditu egiten badu kostu hori, murriztu egingo da programa honetan araututako laguntzaren zenbatekoa jardueraren gehiegizko finantzaketa saihesteko behar den neurrian.

4.– Programa hau aplikatuz emandako laguntzek garrantzi gutxiagoko laguntzen edo de minimis izaera dute.

5.– Erakunde onuradun batek jaso dezakeen de minimis guztien kopurua ezingo da 300.000 eurotik gorakoa izan hiru urteko edozein alditan zehar.

6.– De minimis laguntzak ez zaizkio metatuko Estatuko inongo dirulaguntzari, diruz lagun daitezkeen gastu horiei dagokienez, ezta arriskuaren finantzaketa-neurri berdinentzako Estatuko beste edozein dirulaguntzari ere, baldin eta metatze horrek gaindituko balu laguntzaren intentsitatea edo dagokion dirulaguntzaren kopururik altuena. Gehieneko kopuru hori kasu bakoitzaren ezaugarri zehatzen arabera dago ezarrita, kategorien araberrako salbuespen-araudi baten edo Batzordeak harturiko erabaki baten bitartez.

7.– Aurrez aipatutako muga horiek edo programa honek zehazten dituen beste batzuk gaindituz gero, soberako kantitatea murriztu egingo da programaren arabera emandako zenbatekotik.

8.– De minimis laguntzak emandakotzat hartuko dira enpresari laguntza jasotzeko eskubide legala ematen zaion unetik hasita.

11. artikulua.– Dirulaguntzaren eskaera eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Eskera, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta oinarri hauen ondoriozko gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dira SPRIren webguneaz baliaturik.

2.– Aurreikusitako dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeek dirulaguntzaren eskaera bete beharko dute SPRIren webgunean dagoen aplikazio informatikoaren bitartez. Ondo ondoko pantailak ditu aplikazioak eta eskatzaileek eskatuko zaien informazioa ikusi ahal izango dute horietan, oinarri hauen arabera.

3.– Dirulaguntzaren eskaera hori sinadura elektronikoa aurreratuaren bidez (ziurtagiri elektronikoa aitortu batekin) sinatu beharko du erakundeak ordezkatzeko nahikoa ahalorde duen pertsona batek. SPRIren sistemetan egindako eskaerako sinadura elektronikoa eguna hartuko da aurkezpen-egun modura.

4.– Erakunde onuradunaren eta bere legezko ordezkararen identifikazio-datuak jaso beharko dira laguntza-eskaeran.



5.– SPRIk kontsultatu egingo du ea zerga-betebehar guztiak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak betetzen diren, baita enpresa Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoen ere. Nolanahi ere, dirulaguntzaren eskaera egitean aukera dago eskatzaileak uko egiteko SPRIk kontsulta hori egin dezan. Kasu horretan, dagokion egiaztatutako aurkeztu beharko ditu.

6.– Laguntza-eskaerarekin batera agiri eta informazio hauek aurkeztu behar dira:

1. lerrorako:

a) Oinarri arautzaile hauen II. eranskinean ageri den normalizatutako ereduaren edukiaren arabera egindako erantzukizunpeko adierazpena.

b) 30.000 eurotik gorako laguntza-eskaeren eta enpresen kasuan, erantzukizunpeko adierazpena edo, hala badagokio, ROACen izena emandako auditorearen ziurtagiria, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.3 bis artikulua (ordaintzeko epe legalei buruzkoa) betetzeko.

c) Alderdi hauei buruzko informazioa:

– Aurreko hiru urteetan emandako de minimis laguntzen zerrenda, bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

– Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

– Enpresaren tamaina zehazteko datuak, hau da, enpleguaren urteko datuak, negozioaren bolumena eta negozioaren balantze orokorra, baita enpresari lotutako edo bazkidetutako gainerako enpresena eta talde osoarena ere. Horren barruan, talde osoaren antolakuntza-eskema gehitu beharko da, parte-hartzeekin eta enplegu-datuekin, ustiapen- eta balantze-kopuruekin, eta hori guztia dirulaguntzak eskatu aurreko ekitaldiei dagokienez.

d) Legezko ordezkariaren notario-ahalordea. Onuraduna langile autonomoa baldin bada, dagokion Foru Aldundiaren edo Udaleko ogasun sailaren ziurtagiri eguneratua, jarduera ekonomikoa egiaztatutako duena.

e) Erakunde onuradunaren IFZ.

f) Instalazioaren memoria tekniko deskribatzailea, ebaluatu ahal izateko xehetasun nahikoarekin eta oinarri hauetan jasotako alderdiekin; baita aurrekontu ekonomiko xehea eta 7. artikuluan deskribatutako kontzeptuetan edo diruz lagundu daitezkeen gastuetan oinarritutako amaierako laburpena ere.

g) Hornitzaileen eskaintzak, DEALen 30.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Enpresa onuraduna laguntza-eskaera aurkeztu aurreko 12 hilabeteetan sortu bada, enpresaren «negozio-plana» aurkeztu beharko da.

2. lerrorako:

a) Erantzukizunpeko adierazpena, oinarri arautzaile hauen II. eranskinean ageri den normalizatutako ereduaren edukiaren arabera egindakoa.

b) Alderdi hauei buruzko informazioa:

– Aurreko hiru urteetan jasotako de minimis laguntzen zerrenda, bertan adierazi beharko da laguntza hori noiz eman zen, zer erakundek eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

2024ko irailaren 2a, astelehena



– Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

c) Legezko ordezkariaren notario-ahalordea. Onuraduna langile autonomoa baldin bada, dagokion Foru Aldundiaren edo Udaleko ogasun sailaren ziurtagiri eguneratua, jarduera ekonomikoa egiaztatuko duena.

d) Erakunde onuradunaren IFZ.

e) Ordainketak egin ahal izateko, finantza-erakundearen egiaztigiriaren fotokopia, kontu korrontearen titulartasuna onuradunaren izenean dagoela frogatzeko eta zenbakia zein den zehazteko (IBAN).

f) Telekomunikazioetako operadorearen aukeratutako eskaintza ekonomikoa, alta-kuota eta hileko tarifa errepikariak banakatuta.

g) Hornitzaileen eskaintzak, DEALen 30.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

h) Enpresa onuraduna laguntza-eskaera aurkeztu aurreko 12 hilabeteetan sortu bada, enpresaren «negozio-plana» aurkeztu beharko da.

7.– Enpresa onuradunak eta SPRIk baliozkotzat joko dituzte laguntza-eskaeran adierazitako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidaltzen diren jakinarazpen guztiak. Laguntzaren onuradun gisa agertzen den enpresaren helbide elektronikoa bakarrik onartuko da harremanetarako helbide gisa.

8.– Eskatzaileek bermatuta izango dute beren hizkuntza –euskara edo gaztelania– ahoz nahiz idatziz erabiltzeko eskubidea, programa honen ondorioz SPRIrekin izango dituzten harreman guztietan.

9.– Horrez gain, 1. lerroaren kasuan, finantzaketa Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketatik datorrenez, dokumentazio hau aurkeztu beharko da eta dokumentazio orokorrari gehitu beharko zaio:

a) Onuradunaren zein, hala badagokio, azpikontratisten benetako titulartasuna identifikatzea. Identifikazio hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan definitzen den moduan egin beharko da, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluari dagokionez 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikulua ezartzen duen moduan.

2023ko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan aipatzen den egiaztapenaren arabera, eskatzailearen baten titulartasun errealearen daturik ez baldin badago, datu horiek 5 egun balioduneko epean eman beharko zaizkio eskatzen dituen administrazioari. Ezarritako epean informazio hori entregatzen ez bada, prozeduratik kanpo geratzeko arrazoia izango da.

b) Titulartasun errealearen erantzukizunpeko adierazpena, 2015eko maiatzaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera eta VII. eranskinean ezarritako moduan.

c) 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikulua arabera jarduera ekonomikoak garatzen dituzten erakunde onuradunek Zerga Administrazioari Espainiako Agentziaren enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen zentsuan edo Aldundiko Zerga Administrazioaren zentsu baliokidean izena emanda daudela egiaztatu beharko dute, eta dirulaguntza eskatzeko epean jarduera ekonomikoa behar bezala garatzen dela erakutsi beharko dute.

2024ko irailaren 2a, astelehena



d) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» («do no significant harm – DNSH» printzipioa) printzipiora egokitzeko erantzukizunpeko adierazpena egitea, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 2. artikuluan 6) atalean ezartzen den moduan; eta etiketa klimatikoaren eta digitalaren betebeharrak betetzea, ehuneko 0ko eta ehuneko 100eko portzentajearekin hurrenez hurren, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoaren arabera.

e) Interes Gatazkarik Ez Dagoela Adieraztea, IX. eranskinean ezarritakoaren arabera.

f) Iruzuraren aurkako politika ezagutzen dela eta horri atxikitzen zaiola adierazteko erantzukizunpeko adierazpena, VI. eranskinean ezarritakoaren arabera.

g) Finantzaketa bikoitzik ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, VIII. eranskinean ezarritakoaren arabera.

h) Funtzen erabilerari buruzko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan inplikaturako Administrazio Publikoen artean datuak lagatzea onartzeko adierazpena, indarrean dagoen araudiaren arabera eta III. eranskinean ezarritakoa betez.

i) BEEP-Next Generation EUn ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko eta kudeaketa-xedearen arloari eragin diezaioketenei buruzko erantzukizunpeko adierazpena, IV. eranskinean ezarritakoaren arabera.

12. artikulua.– Laguntza-eskaerak aurkezteko epea.

Oinarri hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da laguntza-eskaerak aurkezteko epea, eta 2024ko abenduaren 13an bukatuko da. Dena den, eskatzaileei zuzendutako arreta teknikoa 2024ko abenduaren 13ko 15:00etan amaituko da (Espainiako penintsulako ordua).

Laguntza-eskaera eta aurreko artikuluan eskatutako dokumentazioa diruz lagun daitekeen jardura hasi aurretik aurkeztu beharko dira.

Halaber, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako proiektuen dirulaguntza eskaeren izapideak onartuko dira.

13. artikulua.– Esleipenaren prozedura.

1.– Organo kudeatzaileak kudeatuko ditu laguntza-eskaerak, espedientea osorik dagoen unetik aurrera.

2.– Prozedura SPRIko Zuzendaritza Nagusiak ebatziko du, ondoz ondoko esleipenaren erregimenean, eta erakunde eskatzaileari jakinaraziko zaio gehienez ere 10 egun balioduneko epean, igortzen denetik zenbatzen hasita. Baiespen- edo ezespren-ebazpen hori SPRIko zuzendari nagusiak emango du, eta eskatzaileari jakinaraziko zaio; halaber, haren aurka berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ahalko da SPRIren zuzendari nagusiaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan.

3.– Ebazteko epea. Ebazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izango da agiri guztiak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita. Aipatutako epean ebazpenik ematen ez bada, ezetsi egin dela ulertuko da.

4.– Erakunde eskatzaileei ebazpenen berri ematean jakinaraziko da zenbateko dirulaguntza emango den, zein baldintzatan ematen den, (EB) 2831/2023 Erregelamenduaren arabera izatea eta jardura hori garatzeko beharrezkoa den beste edozein baldintza ere adieraziko da.



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



5.– Ebazpena SPRIren webgunean eta EHAA n argitaratuko da, denek izan dezaten emandako laguntzen berri.

14. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Diruz lagundu daitekeen jarduketa amaitutakoan erakunde onuradunek jarduketa hori justifikatu beharko dute, gehienez ere 2 hilabeteko epean 1. lerroan diruz lagundu daitezkeen jarduketentzat eta 3 hilabeteko epean 2. lerroan diruz lagundu daitezkeen jarduketaren kasuan, SPRIren webgunean dauden Likidazio Eskaren formularioen bidez.

Nolanahi ere, 1. lerroan dirulaguntzaren xede-jarduketak exekutatzeko gehieneko epea 2024ko abenduaren 31ra arte izango da. Justifikazio-epea amaitu ondoren, ez dira onartuko egindako fakturak eta ordainketak.

2.– Eskaera hori sinadura elektronikoaren bidez sinatu beharko du erakundea ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen pertsona batek. SPRIren sistemetan emandako sinadura elektronikoaren eguna hartuko da aurkezpen-egun modura.

3.– Erakunde eskatzailearen eta bere legezko ordezkariaren identifikazio-datuak jaso beharko dira likidazio-eskaeran.

4.– Likidazio-eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu behar dira.

a) 1. lerroko eskatutako dirulaguntzen kasuan, jarduketa egin izana justifikatzeko dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Jarduketaren deskribapen-memoria.

– Ezarritako gutxienez 1 Gbps-ko komunikazio-sare elektronikoaren diseinuaren as-built eskemak.

– Sare horren azpiegituraren, kableen eta abarren as-built planoak.

– Jarduketaren kostua edo amaierako inbertsioa, 7. artikuluan jasotako diruz lagun daitezkeen kontzeptuen arabera xehatuta.

– 1. lerro horretarako hautagarriak diren gastuen eta inbertsioen fakturak.

b) 2. lerroari dagozkion laguntzetarako, zerbitzuen hornitzailearen faktura, alta-kuota adierazita.

c) Bi lerroentzako:

– Finantza-erakundearen ordainagiriak.

– Jarduerak, dirulaguntzarekin ez ezik, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin ere finantzatu badira, diruz lagundutako jardueretan bideratutako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa egiaztatzea beharko dira.

– Finantza-erakundearen egiaztagiraren fotokopia, kontu korrontearen titulartasuna onuradunaren izenean dagoela frogatzeko eta zenbakia zein den zehazteko (IBAN).

Liquidazio-eskaerarekin, espresuki baimena ematen zaio SPRIri eska dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak eguneratuak dituela egiaztatzen duen ziurtagiria eta, era berean, kontsulta dezan enpresa JEZn (jarduera ekonomikoen gaineko zergan) alta emanda dagoen epigrafea.



Dena den, eskatzaileak uko egin diezaioke ofizioz egiaztatzeari. Hala bada, kasu bakoitzean eskumena duen organoaren administrazio-ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko ditu.

5.– 1. lerroaren kasuan, justifikazioan egiaztatuko da esleitutako funtsak aurreikusitako helburuetarako erabili direla eta arau aplikagarri guztien arabera kudeatu direla, zehazki, interes-gatazkak, iruzurra, ustelkeria eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik eratorritako finantzaketa bikoitza prebenitzeko arauen arabera. Bereziki, Europako Batzordearen eta Espainiaren arteko Akordio Operatiboak onartzen dituen Batzordearen Erabakiaren eranskinean aurreikusitakoa hartuko da kontuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren arabera.

2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 61.3 artikulua arabera, onuradunek egiaztatu beharko dute Estatuko Aurrekontu Orokorretan Europako funtsen kudeaketarako berriaz esleitutako kredituen kargura dauden aurretik esleitutako beste mailegu edo aurrerapenak ordaintzeko betebeharra egunean dutela. SPRIri dagokio ordaindu aurretik baldintza horiek betetzen direla egiaztatzea, eta, horretarako, tokiko erakunde onuradunaren ziurtagiria eskatuko du, beste moduren batean egiaztatu ezin bada.

2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan (2018ko uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Erregelamendua —EB, Euratom—) ezarritakoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia Planaren funtsak jasotzeko, Batzordeak, iruzurraren aurkako Europako bulegoak, Europako Kontu Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta autoritate nazional eskudunek beren kontrol-kompetentziak gauzatu ahal izateko eskubideak eta beharrezko sarbideak lagatzeko konpromisoa aurkeztu beharko da idatziz.

Ezarritako baldintzak eta deialdi honetan araututako dirulaguntzak esleitzeko garaian aurreikusitako helburuak bete direla egiaztatzeko, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzen 20/2023 Legean eta bere garapen-araudian ezarritako prozedurak egin beharko dira, eta 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 63. artikuluan aurreikusitako neurri bereziak eta, hala badagokio, Europar Batasunaren araudi aplikagarria aplikatuko dira.

Erakunde onuradunek laguntza ematen duen administrazioak egindako egiaztapen-jarduerak, Kontu-hartzailatza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolko jarduerak eta Kontu Auzitegiaren legerian aurreikusitakoak bete beharko dituzte, bai eta Europako Erkidegoetako Batzordeak eta Kontu Auzitegiak, Iruzuraren Aurkako Europako Bulegoak, Auditoretzako Bulego Nazionalak eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzak egin ditzaketenen ere.

Nolanahi ere, oinarri hauetan araututako dirulaguntzei Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezarritako jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egingo zaizkie, eta barne-araudiak eta Europar Batasunekoak EBren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismorako ezarritako informazioari eta publikitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluazioari eta gainerako betebeharrei buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Zehazki, auditoretza eta kontrola egiteko eta Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak exekutatzen laguntzeko neurrii dagokienez funtsen erabilerrari buruzko datu alderagarriak izateko, laguntza ematen duen administrazioek datuen kategoria harmonizatuak jasoko dituzte, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Erakunde onuradunek finantzaketarekin lotutako frogagiriak eta gainerako dokumentazioa gorde beharko dituzte formatu elektronikoa, bost urteko epean, operaziotik zenbatzen hasita, edo hiru urteko epean dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) 132. artikuluan aurreikusitakoa betez («Erregelamendu Finantzarioa»).



6.– Ebazpena Zuzendaritza Nagusiak emango du eta haren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahalko da SPRIren zuzendari nagusiaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epe eta moduan.

15. artikulua.– Laguntza- eta/edo likidazio-eskaerak zuzentzea.

1.– Laguntza- eta/edo likidazio-eskaerak ez badaude behar bezala beteta puntu guztietan edo ez bada eskatutako dokumentazio osoa ekartzen, SPRIk 10 egun balioduneko epea emango dio erakundearen legezko ordezkariari akatsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak helarazteko.

2.– Erakunde onuradunak epe horretan akatsa zuzendu ez badu, eskaera ukatuko da, helburu horretarako agindutako ebazpen baten bidez.

16. artikulua.– Laguntza ordaintzea.

1.– 1. lerroaren kasurako, dirulaguntzaren ordainketa aldi bakar batean egingo zaio laguntzaren erakunde onuradunari, hark 14. artikuluan eskatutako likidazio-eskaera eta justifikazio-dokumentazioa aurkeztu ondoren.

2.– 2. lerroaren kasurako, dirulaguntzaren ordainketa bi zatitan ordainduko da. Lehen ordainketa laguntza emango dela adierazten duen ebazpena jakinarazi ondoren egingo da; dirulaguntzaren % 50ari dagokion zenbatekoa ordainduko da, aplikagarri zaion berme-araubidearekin. Bigarren ordainketan, gainerako % 50a ordainduko da, likidazio-eskaera eta 15. artikuluan adierazitako egiaztagiria aurkeztu ondoren.

3.– Baldin eta gastu hautagarria dirulaguntza emateko ebazpenean onartutako aurrekontuan adierazitakoa baino txikiagoa bada, dirulaguntza proportzionalki egokituko zaio gastuari, 9. eta 10. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

17. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Oinarri hauen arabera emango diren dirulaguntzen onuradun izango diren erakunde onuradunek honako artikulua hauetan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte: DEALen 14. eta 42. artikuluetan jasotakoak, eta, aplikagarria den heinean, DLOren 14. eta 46. artikuluetan jasotakoak, eta zehazki eta xede mugatzailerik gabe, hauek beteko dituzte:

a) Dirulaguntza emateko xede den jarduera egitea edo egoera horretan egotea.

b) Eskakizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea SPRIren aurrean, eta dirulaguntzak jasotzeko edo gozatu ahal izateko beharrezkoa den jarduera egitea.

c) Emandako laguntza onartzea. Horrekin lotuta, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso den dataren ondorengo hamar egun balioduneko epean, erakunde onuradunak ez badio SPRIren aurrean laguntzari espresuki uko egiten, onartuta geratu dela ulertuko da.

d) Emandako laguntza jarduera-plana garatzera bideratzea.

e) Onartzea SPRIk beharrezkotzat jotako dokumentazio osagarria eska dezakeela eta SPRIk izendatutako langileek, bere edozein instalaziotan, beharrezkotzat eta egokituz jotako egiaztapen guztiak egin ditzaketela. Horien guztien helburua izango da emandako laguntzaren xede den proiektua gauzatu dela eta eskatutako baldintzak bete direla egiaztatzea.

f) Faktura osoak gordetzea eta SPRIren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esku jartzea bost urtez, gastu hautagarriak gauzaten direnetik aurrera.



g) Oro har, eta hala badagokio, SPRIk egin beharreko egiaztapen-jarduketak baimentzea edo Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikorako Bulegoak, Euskadiko Kontu Publikoen Auzitegiak edo Estatuko zein erkidegoko beste edozein kontrol-organo eskudunek jasotako dirulaguntzen gainean egin beharreko beste edozein egiaztapen eta kontrol finantzario baimentzea, aurretik aipatutako zeregin horiek egiteko beharrezkoa den edozein informazio emanez.

Zehazki, 1. lerrorako:

Nolanahi ere, diruz lagundu daitezkeen jarduketei Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planerako ezarritako jarraipena eta kontrola egingo zaizkie, eta barne-araudiak eta Europar Batasunekoak EBren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismorako ezarritako informazioari eta publizitateari, kontrolari, egiaztapenari, jarraipenari, ebaluazioari eta gainerako betebeharrak buruz ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte. Aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, onuradunek betebeharra izango dute dirulaguntzen jarraipena egiteaz arduratzen den erkidegoko organoari ikuskapenak eta egiaztapenak egiten uzteko, dirulaguntzaren xede-jarduerak esleipen-ebazpenean ezarritako moduan egin direla egiaztatu ahal izateko. Halaber, Estatuko Administrazio Orokorraren Esku Hartzearen, Kontu Auzitegiaren fiskalizazio-kontrolaren eta Europako Batzordeko kontrolerako eta fiskalizatorako organoek egin ditzaketen kontrolen mende egongo dira, Europako funtsekin finantzatutako dirulaguntzen kudeaketarako aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera. Telekomunikazioen eta Azpiegituren Estatu Idazkaritzak beharrezkoak diren ikuskapen guztiak egingo ditu 988/2021 EDn araututa dauden dirulaguntzek baldintzak, eskakizunak eta helburuak betetzen dituztela egiaztatze eta ziurtatzeko. 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, aipatutako araudiko 22. artikuluan ezartzen diren administrazioak eta organoek sarbidea izango dute Titular Errealen Erregistroko informazioa (kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko 2010eko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarria) edo benetako titularrei buruzko datu horiek eman ditzakeen administrazioaren beste datu-base batzuetara. Halaber, sistema horien eta Europako Funtsen Sistemaren artean informazioa laga daiteke, aplikagarria den Europako eta Estatuko araudian jasotako aurreikuspenen arabera.

h) SPRIri berehala jakinaraztea laguntzak edo dirulaguntzak edota beste edozein diru-sarrera edo baliabide eskatu edo jaso dutela hemen araututako dirulaguntzen xede berbererako beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuen bidez.

Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

i) Dirulaguntza emateko garaian kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatu dela jakinaraztea SPRIri.

Jakin eta berehala jakinarazi beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen edo justifikatzeko unean.

j) Esleipenaren ebazpena eman aurretik eta ordaintzerako unean egiaztatzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak zein dirulaguntzen itzulketei lotutako betebeharrak egunean daudela, ogasunaren arloan eskumenak dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren saileko titullarrak emandako aginduan ezartzen den moduan.

k) Erakundearen izaera juridikoa dela-eta kontabilitate-liburuek hala ezarri gero, diligentzia-erregistroak eta behar bezala ikustatutako gainerako dokumentuak aurkeztea pertsona onuradunari dagokion merkataritzako legeriak eta sektoreko legeriak ezartzen dutena betez, baita dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoerak eta erregistroak ere, egiaztatze eta kontrolatzeko jarduketak behar bezala egitea bermatzeko.



l) Jasotako funtsen aplikazioaren dokumentu justifikatzaileak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrolatzeko jarduketak egin ahal izateko.

m) Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekintzen argitalpenean, iragarkietan eta publizitatean bi hizkuntza ofizialak erabiltzea.

n) Garatutako jardueraren edo jarduketan diruz lagundutako kostuaren soberakina edo jasotako funtsak itzultzea, DEALen 36. artikuluan jasota dauden kasuetan.

o) Hizkerak eta irudiek ikuspegi interseksionala errespetatzea eta, batez ere, sexu- eta genero-ikuspegia kontuan hartzea, dirulaguntza jasoko duen jarduerak edo proiektuak eskatzen dituen dokumentu eta material guztietan.

p) Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea eta, batez ere, euskara erabiltzea diruz lagundutako jarduketarekin lotutako argitalpenetan, iragarkietan eta publizitatean.

q) DEALen 30.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duena enpresa bat baldin bada, operazio komertzialetan egindako diruz lagundu daitezkeen gastuak aplikagarria den sektoreko araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira, edo, hala badagokio, merkataritzako operazioetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen 2004ko abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

r) Onuraduna DEALen 48.1 artikuluan aurreikusita dauden egoeraren batean baldin badago, deslokalizaziorik ez egitea.

s) Halaber, 1. lerroaren kasurako, oinarri hauen I. eranskinean jasotako C15.I2 inbertsioa exekutatzeko baldintza espezifikoak bete beharko dira.

t) Onuradunek Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari dagokionez dituzten betebeharrak bereziak (1. lerroa). Onuradunek, gainera, Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari buruzko Europako eta Estatuko betebeharrak hauek bete beharko dituzte. Honetarako betebeharrak izango dute:

I.– «DNSH – Do No Significant Harm printzipioa» (ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa) erabat betetzen dela bermatzea, baita etiketa klimatikoaren eta digitalaren betebeharrak ere, ehuneko 0 eta ehuneko 100 portzentajearekin hurrenez hurren, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduak eta bere garapen-araudiak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoan eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean aurreikusitakoaren arabera. Betebeharrak hori proiektuen diseinuaren eta exekuzioaren fase guztietan eta jarduketa bakoitzean aplikatuko da. Nolanahi ere, erakunde horiek printzipio hori eta neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatze mekanismoak aurreikusiko dituzte, horien ezarpena bermatzeko, eta dirulaguntzaren justifikazio-memorian jasoko dute hori bera.

II.– Interes-gatazkak, iruzurra eta ustelkeria ez daudela bermatzea eta dirulaguntza ematen duen administrazioak onartutako Iruzuraren Aurkako Neurrien Plana baldintzarik gabe onartzea. Izan ere, plan horren xedapenak oso-osorik bete beharko dira, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, antzemateari eta zuzentzeari buruzko Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europako araudia erabat errespetatuz, bai eta Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari buruz bere erakundeek egiten dituzten erabakiekin bat etorriz ere.

III.– Onuradunak dirulaguntzak esleitzen dituen administrazioari jakinarazi beharko dio helburu berdinerako beste dirulaguntzarik jaso den. Ezingo da kostu beraren gainean finantzaketa bikoitzik ezarri, beste edozein administrazio edo erakunde publiko nazional edo internazionaleratik eratorrita ere.



IV.– Europako Batzordeak, Iruzzurraren Aurkako Bulegoak, Europako Kontu Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak betetzea. Horretarako, organo horiei beren dirulaguntzari buruzko informazio guztirako sarbidea emango zaie, otsailaren 12ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan ezarritakoaren arabera.

V.– Erakundeak dirulaguntza horren finantzaketa Europar Batasuneko MRRtik datorrela badakiela bermatzea, MRR ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamendutik eratorritako betebeharrak guztiak eta finantzaketa honentzat aplikagarriak diren beste arau komunitario eta nazionalak betetzeko. Baldintza hori erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko da.

VI.– Europako Batzordeari, Iruzzurraren Aurkako Bulegoari, Europako Kontu Auzitegiari eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari berariazko baimena ematea Erregelamendu Finantzarioaren 129. artikuluko 1. atalak aitortzen dizkien eskubideak gauzatzeko eta Suspertze eta Erresilientzia Planaren barruan dauden erreformei eta inbertsio-proiektuei buruzko neurri aplikagarrientzako amaierako hartzaile guztiei edo aplikazioan esku hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiei betebeharrak ezartzea, eta Batzordeari, Iruzzurraren Aurkako Bulegoari, Kontu Auzitegiari eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzari berariazko baimena ematea Erregelamendu Finantzarioaren 129. artikuluko 1. atalak aitortzen dituen eskubideak gauzatzeko eta funtsen amaierako hartzaile guztiei antzeko betebeharrak ezartzeko.

VII.– Jasotako funtsen aplikazioaren justifikazio-dokumentuak zaintzea eta kontserbatzea 5 urtetan zehar, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jarduketak gauzatu ahala izateko, eta finantzaketaren zenbatekoa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada, hiru urtez, 2018ko uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) 132. artikuluko eta 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.f) artikulukoaren arabera.

VIII.– Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluko ezartzen dituen komunikazio-betebeharrak betetzea. Zehazki, inbertsioen bidez garatutako jarduketaren informazioa eta komunikazioetan (kartel informatiboak, plakak, inprimatutako argitalpenak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materiala, webguneak, iragarkiak eta prentsako agerraldiak, ziurtagiriak, etab.), logo hauek gehitu beharko dira:

a) Europar Batasunaren ikurra.

b) Batasunaren ikurrarekin batera, «Europar Batasunak-Next Generation EUk finantzatua» testua gehituko da.

c) 821/2014 Beteazteko Araudiaren II. eranskinean ezarritako arau grafikoak eta kolore normalizatuak izango dira kontuan.

IX.– Identifikazio-datuak datu-base batean sartzea, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta BEEPren kudeaketa-sistema konfiguratzeko 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

X.– Diruz lagundutako jarduketaren exekuzioaren fidagarritasunaren eta jarraipenaren arduradun izatea, jarduketa bakoitzaren lortze-maila ezagutu ahal izateko uneoro. Hirugarrenek garatu beharreko jarduketaren kasuan, aurreikusitako jarduketak lortzeko ekarpena bermatzen duten mekanismoak ezartzea eta hirugarrengo horiek Suspertze Planaren adierazle, mugarrien eta helburuen balioa zehazteko beharrezkoa izan daitekeen informazioa ematea, hala badagokio.



XI.– Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzea, aplikagarria den Europako araudian aurreikusitakoa, Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikulua osoa betetzeko. Agindu horrek funtsen amaierako hartzailea identifikatzea arautzen du eta bere informazioak eskuragarri egon beharko du 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikulua ezartzen duen moduan. Hori guztia 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikulua garatzeko.

XII.– Pertsona fisikoak ez diren hartzaileek kontabilitate-sistema berezia edo kontabilitate-kode berezia izan beharko dute, dirulaguntzaren xede-jarduketarekin lotutako transakzio guztiak behar bezala jasotzeko. Halaber, kontabilitate-liburuak, diligentzia-erregistroak eta onuradunarentzat aplikagarria den legeriak eskatutako gainerako dokumentuak izan beharko ditu, esaterako, fakturak eta gastuaren balioa baliokidea dela egiaztatzeko gainerako egiaztagiriak eta dagozkion ordainagiriak. Dokumentu horiek guztiak dira esleitutako dirulaguntzaren justifikazio-euskarria, hartzaileen kontabilitatean behar bezala islatzen dela bermatzen dute eta gutxienez hamar urteko epean kontserbatu beharko dira.

XIII.– Espainian enplegu-sorrera garbiaren irizpideak aplikatzea, gure herrialdean edo Europar Batasunean enplegua sortzen duten enpresak azpikontratatzea, jarduera eta enplegua hiri edo herri txikietan eta hiri edo industrialdeetatik kanpo sortzeko lurralde-koherentsia izatea eta genero-berdintasuna ezartzea. Bereziki kontuan hartu beharrekoak dira ETEen, mikroETEen, autonomoen eta start-upen kasuan.

XIV.– Jarduketa guztietan genero-ikuspegia aplikatzen dela bermatzea, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan finantzarriak diren jarduketetan genero-ikuspegia txertatzeko Berdintasun Ministerioak argitaratutako Administrazio Publikoentzako Gidan jasota dauden gomendioak jarraituz.

18. artikulua.– Dirulaguntzak aldatzea eta epeak luzatzea.

1.– Bi lerroetan, ezingo da dirulaguntzaren xedea, eta esleitutako dirulaguntzaren helburua aldatu, eta ezingo dira jarduerak, jarduketak edo portaera moldatu, ezta esleipen-ebazpenean jasota dagoen dirulaguntzaren zenbatekoa igo ere. Halaber, ezingo dira aldatu dirulaguntza emateko onuradunak proposatutako edo eskaintako alderdiak.

2.– Justifikatutako arrazoen bitartez, proiektua burutzeko epea luzatu ahal izango da; betiere, horrek ez badu eraginik Suspertze Plan honen proiektuarekin lotutako helburuetan eta hirugarrengoen eskubideei eragiten ez badie.

3.– 2. lerroaren kasuan, programaren kudeatzaileak jarduerak gauzatzeko luzapen bat eman dezake, baldin eta erakunde eskatzaileek hala eskatu eta behar bezala justifikatzen badute; luzapen horren ondorioz, gehienez, 12 hilabetez atzeratu ahal izango da proiektuak gauzatzeko epea (12 hilabetekoa da epe hori).

19. artikulua- Bete gabekoen itzulketa eta graduazio-maila.

1. lerroko:

988/2021 EDn eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzak eta, hala badagokio, esleipen-ebazpenean ezarritakoak betetzen ez badira, jasotako dirulaguntza bete ez izana hautematen den nean dirulaguntza gehi dagozkion atzerapen-interesak itzuli beharko dira, aurrekontu orokorren 2003ko azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 77. artikuluan xedatutakoaren arabera; gainera, hala dagokionean, DEALen eta 698/1991 Dekretuaren II. tituluan xedatutakoaren arabera, dagozkion legezko ekintzak eta zigorrak ezarri ahal izango dira.



Osorik edo partzialki itzuli beharko dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta bere garapen-araudian aurreikusitakoak.

DNSH printzipioa, etiketa klimatikoa edo 17. artikuluan eta I. eranskinean jasotako baldintzak betetzen ez badira, onuradunak ordura arte jasotako kopuruak itzuli beharko ditu, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezartzen den moduan, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen berme eta ordainketen araubide orokorra, eta zeinetan finkatzen diren berorren kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.

Jasotako kopuruak itzultzeko betebeharrak hori aplikagarria izango da baita ere mugarriak eta helburuak, egutegia, interes-gatazken adierazpena edo BEEP-Next Generation EU araudiarekin lotutako beste edozein alderdi betetzen ez bada, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren 2022ko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 7. artikuluko zazpigarren arauan eta Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresiliencia Plana exekutatzeko neurriak onartzen dituen 2020ko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, kontuan hartuko da Suspertze eta Erresiliencia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamendua.

Itzultzeko prozedura Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta bere garapen-araudira egokitu beharko da.

Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak hauek izango dira:

a) Dirulaguntza jasotzeko helburua ez bada erabat betetzen eta adierazten, edo beste edozein irregulartasun sistematiko edo finantzatutako proiektuaren funtsezko elementuei eragiten dien edozein irregulartasun baldin badago, dirulaguntza osorik itzuliko da eta, hala baldin badagokio, jasotzeke dauden kopuruak kobratzeko eskubidea galduko da.

b) Xedea partzialki betetzen ez bada edo jarduera zehatzei eragiten dien helburua betetzen ez bada, edo proiektuarentzat funtsezkoak ez diren elementuei soilik eragiten dion beste irregulartasunen bat baldin badago, dirulaguntzaren zati hori itzuli beharko da eta, hala badagokio, jasotzeke dauden kopuruak kobratzeko eskubidea galduko da.

2. eta 1. lerroetarako, aurreko ataletan ezarritakoarekin kontraesanik ez dagoen heinean:

1.– Ikusiko balitz erakunde onuradunek ez dutela bete oinarri hauetan, aplikatzekoak diren gainerako arauetan eta, hala badagokio, laguntzen ebazpenean ezarritako baldintzetakoren bat, emandako laguntza eskuratzeko eskubidea galduko dute eta SPRIri itzuli beharko dizkiote ordura arte kobratu dituzten laguntzen diru kopuruak gehi dagozkien berandutze-interesak, eta behar balitz, legezko jarduketak abiaraziko dira diru kopuru horiek itzul ditzaten. Era berean, enpresak hutsegiteren bat egin duela egiaztatzen bada, programa honi atxikitako beste proiektu batzuetan parte hartzea debeka dakioko.

2.– Edonola ere, artikulua honetan aurreikusitako ondorioetarako ez-betetzeak izango dira:

a) Laguntza-eskaeran eta dokumentazio osagarrian jasotako ekintzak aldatzea SPRIren baimenik gabe. Halaber, ez-betetzea izango da SPRIri ez jakinaraztea proiektuaren exekuzioan gertatutako aldaketak, baldin eta aldatu egiten badituzte laguntza emateko aztertu ziren baldintzak. Posible da aldaketak baimentzea, betiere erakunde onuradunak baimena eskatu badio SPRIri, eta justifikatu baditu aldaketa horiek, ahal dela, proiektuan aplikatu baino lehen, eta betiere, programa honek lagundutako jardueren eta lortu nahi dituen helburuen izaera aldatzen ez badute.

b) Gastu hautagarriak epe barruan ez justifikatzea edo programa honetan eta laguntza emateko ebazpenean jasotako eskakizunak ez betetzea.

2024ko irailaren 2a, astelehena



c) Diruz lagundutako proiektua betetzeko epeak gainditzea, aldatzeko baimena edo luzapena eman ez bada.

d) Laguntza eskuratzea programa honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak edo laguntza emateak berekin zekartzan baldintzak bete gabe.

e) Programan edo laguntza emateko ebazpenean aurreikusitako kontrol neurriak ez onartzea edo horien garapena oztopatzea.

f) Proiektua beste zerbaitera desbideratzea edo laguntzak emateko ebazpenean ezarritako beste edozein betebeharrak ez betetzea.

g) DLOren 37. Artikuluan, DAOren 91tik 93ra bitarteko artikuluetan eta DEALen aurreikusitako arrazoiak.

3.– SPRIri dagokio ez-betetzea egiaztatzen espedientea hasi, izapidetu eta ebaztea.

4.– Ez badira betetzen deialdi honetan eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan jasotako betekizunak (DEALeko 51. artikuluan arabera, enpresa-deslokalizazioaren aitortzea barne) edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko ebazpenean ezartzen direnak, dirulaguntza ezeztatu egingo da ez-betetze espedientea ireki ondoren eta SPRIri dirulaguntza edo berandutze-interesak itzuli beharko zaizkio. Itzulketa horiek Zuzenbide Publikoaren diru-sarrerak izango dira, DEALen eta 698/1991 Dekretuaren II. tituluan ezarritakoaren arabera, nahiz eta horrek ez duen eragotziko kasuan kasuko ekintza legalak abiaraztea eta dagozkion zigorrak ezartzea. SPRIren Zuzendaritza Nagusiari dagokio dirulaguntza ezeztatzea –eta, hala badagokio, partzialki edo guztiz itzularaztea– espedienteak abiarazi eta ebaztea.

5.– Ezarritako baldintzak partzialki betetzen badira, eta betiere, onuradunaren jarduketak konpromisoak asebetetzen dituela egiaztatzen bada, dirulaguntza partzialki ordainduko da edo, hala badagokio, partzialki itzuliko da, eta kalkulatzekoan kontuan hartuko da egindako jardueraren proportzioa, guztizkoaren gainean. Nolanahi ere, onuradunak kobratzeko eskubidea duen kopuru partzialaren zenbatekoa bat etorriko da emandako dirulaguntzaren behar bezala justifikatutako zenbatekoarekin, justifikazioa egiaztatu eta erakunde esleitzailak onartu ondoren.

6.– Halaber, gainfintzazioa badago ordainketaren ostean beste laguntza batzuk jaso izanagatik, programak helburu duen jardueraren kostua gainditzeko laguntza zatia itzuli beharko da, 10. artikuluan araututakoari jarraiki. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehaztuko da gertaera hori adierazteko eta itzulera erabakitzeko emango den ebazpenean.

20. artikulua.– Publizitatea.

1.– Oro har, dirulaguntzen enpresa onuradunek programa honen bitartez esleitutako dirulaguntzaren publizitate egokia egin beharko dute eta hedapen publikorako egiten dituzten dokumentuetan, karteletan, propagandan edo argitalpenetan SPRIren logotipoa eta «SPRIk diruz lagundua» esaldia txertatu beharko dute, esteka honetan eskuragarri dagoen formatuan: <https://www.spri.eus/logo/>

2.– Zehazki, 1. lerroko jarduketarako dirulaguntzen kasuan, funtsak «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana-Europar Batasunak-Next Generation EBk finantzatua» planetik datozenez, Gai Ekonomikoen eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioaren UNICO-Industria eta Enpresak programaren bitartez, diruz lagundutako enpresa onuradun horiek publizitatearen alderdi hauek bete beharko dituzte:

a) Programa honek araututako dirulaguntzen xede-jarduketari buruz argitalpenetan, inbentarioa egiteko materialetan, hedapen-jardueretan, webguneetan eta beste emaitza batzuetan eta, oro har, edozein hedapen bitartekotan egiten den erreferentzia orok Presidentetzako, Gorteezko

2024ko irailaren 2a, astelehena



Harremanetako eta Memoria Demokratikoko Ministerioaren Komunikazioko Estatu Idazkaritzaren 2021eko maiatzeko BEEPen Markaren Gidaliburuan ageri diren baldintzak bete beharko ditu. Gidaliburu hori Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkariaren webgunean egongo da. Erreferentzia guztietan Eraldaketa Digitalerako eta Funtzio Publikoko Ministerioa izango da erakunde finantzatzailea eta UNICO-Industria eta Enpresak Programaren logotipoa agertu beharko da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan. Hori guztia 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 34.2 artikuluan, 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18.4 artikuluan eta 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduaren 31. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Aurrekoaren arabera, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zuzen eta nabarmen adierazi beharko da EBren ikurra, eta «Europar Batasunak-Next Generation EUk» finantzatua dion finantzaketa-adierazpen egokia izan beharko du, BEEPren logotipoarekin batera. Esteka honetan dago eskuragarri: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>

c) Gainera, dirulaguntzen xede-jarduketan arlo materialei dagozkien instalazioak atal honetan aipatutako gidaliburuak ezarritakoaren arabera seinlatu beharko dira.

d) Halaber, Next Generation EU funtsekin lotutako araudian xedatutakoa ere aplikatuko da.

21. artikulua.– 1. lerroa: iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskuaren prebentzioa.

1.– Balizko onuradunak hautatzeko prozesuetan edo baldintzak betetzen diren egiaztatzeko prozesuetan esku hartzen duten pertsonak adierazi beharko dute osorik eta inolako salbuespenik gabe ezagutu eta onartzen dituztela «Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien planaren» terminoak, 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Hitzarmen bidez onartuak. Aurreko ataletan xedatutakoari dagokionez, dirulaguntza esleitzeko organo eskudunaren arduradunak, dirulaguntzaren oinarriak eta/edo deialdia idazten dituen pertsonak eta eskaerak ebaluatzen dituzten adituek eta batzordeko kideek betebeharra izango dute iruzurraren aurkako plan hori ezagutzeko eta onartzeko, baita jarduketa horietan Administrazioarekin lankidetzan aritzen diren eta aholkularitza eskaintzen duten erakunde pribatuetako pertsona fisikoek ere.

2.– 2023ko urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan xedatutakoaren arabera, bertan ezarritako prozedurak aplikatuko dira.

Gainera, agindu hori betetzeko, esleipenerako organo eskudunak eta eskaerak baloratzeko organo-elkargoetako kideek X. eranskinean jasota dagoen interes-gatazka espezifikorik ez dagoela adierazteko agiria sinatu beharko dute eskaerak baloratzeko eta esleipena ebazteko fasean. Gainera, operazioaren arduradunak balizko interes-gatazka egiaztatzeko prozesua egin beharko du, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozesu horretan bandera beltz bat edo gehiago hautematen badira, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedura jarraitu beharko da. Horretarako, eskatzaileei eskatu beharko diete titulartasun errealarari buruzko informazioa emateko bost egun balioduneko epean. Epe horretan entregatzen ez badute, prozeduratik kanpo geratuko dira.

3.– Aurreko ataletan sartzen diren pertsonak Interes Gatazkarik Ez Dagoela Adierazten duen agiria beteko dute, IX. eranskin gisa jasota dagoen ereduaren arabera, eta 2018ko uztailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren 61.3 artikuluan («Erregelamendu Finantzarioa») eta Sektore Publikoko Erregimen Juridikoari buruzko 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.



4.– Interes-gatazkaren bat izan dezaketen autoritateek eta langileek ez dute esku hartuko kaltetutako prozeduretan. Interes-gatazkaren bat egon daitekeela pentsatzen denean, kaltetutako pertsonak idatziz emango dio egoeraren berri hierarkian bere gainetik dagoen pertsonari eta dagozkien Zerbitzu Juridikoek txosten bat egingo dute, dagokien erabakiaren berri emateko. HFP/55/2023 Aginduan kasu zehatzetarako ezarritako prozedura berezia alde batera utzi gabe.

5.– Kontrol Ekonomikorako Bulegoak interes-gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko neurri egokiei buruzko auditorietza espezifikoak egin ahal izango ditu bere kabuz edo IGAerekin lankidetzan (III. maila).

6.– Interes-gatazka bat hautemandakoan, kasu bakoitzean aplikagarriak diren legezko arauen eta araudien araberrako neurriak hartuko dira. Nolanahi ere, interes-gatazkaren egoeraren berri eman beharko da, gardentasun-printzipioa betetzeko.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Aplikatzekoa den araudia.

1.– Programa honi araudi hau aplikatuko zaio:

– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legea eta Lege hori garatzen duen Erregelamendua, dirulaguntza arloko oinarritzko legeriari dagokion guztian.

– 2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta, aplikagarria denean, 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako dirulaguntzen berme eta ordainketen araubide orokorra, eta zeinetan finkatzen diren berorren kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen baldintzak, erregimena eta betebeharrak.

– Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2831/2023 Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa. (EBAO 2013 L 352/1).

– 36/2020 Errege Lege Dekretua, 2020ko abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa Modernizatze eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatzeko premiazko neurriak onartzekoa.

– 988/2021 Errege Dekretua, 2021eko azaroaren 16koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, autonomia-erkidegoentzako eta Ceuta eta Melilla hirientzako industrialdeetako eta logistika-zentroetako konektagarritasuna indartzeko ekintzak exekutatzeko dirulaguntzen esleipen zuzena onartzen duena.

– 1136/2023 Errege Dekretua, 2023ko abenduaren 19koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, autonomia-erkidegoentzako eta Ceuta eta Melilla hirientzako industrialdeetako eta logistika-zentroetako konektagarritasuna indartzeko ekintzak exekutatzeko dirulaguntzen esleipen zuzena onartzen duen 2021eko azaroaren 16ko 988/2021 Errege Dekretua aldatzen duena.

– 520/2024 Errege Dekretua, 2024ko ekainaren 4koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, autonomia-erkidegoentzako eta Ceuta eta Melilla hirientzako industrialdeetako eta logistika-zentroetako konektagarritasuna indartzeko ekintzak exekutatzeko dirulaguntzen esleipen zuzena onartzen duen 2021eko azaroaren 16ko 988/2021 Errege Dekretua aldatzen duena.

– 11/2022 Legea, ekainaren 28koa, Telekomunikazioei buruzkoa.

– Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamendua.

2024ko irailaren 2a, astelehena



– HFP/1030/2021 Agindua, 2021eko irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzekoa.

– HFP/1031/2021 Agindua, 2021eko irailaren 29koa, Estatuko, Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien aurrekontua eta kontabilitatea exekutatzeko delako eta mugarrak eta helburuak betetzen direla bermatzeko jarraitu beharreko prozedura eta eman beharreko informazioaren formatua zehazten dituenak.

– 2024ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzeko 2023ko abenduaren 22ko 21/2023 Legearen II. tituluko V. kapitulua.

– HFP/55/2023 Agindua, 2023ko urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatzeko prozeduretan interes-gatazkak izateko arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa.

2.– Halaber, aplikagarriak izango dira:

– Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko hitzarmena, Gobernu idazkaritzako eta Parlamentuaren Harremanetarako Zuzendaritzaren 2022ko martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko martxoaren 4ko EHAA, 46. zenbakia) argitaratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin lotutako jarduketan eta proiektuen aurrekontua eta kontabilitate-aurrekontua betearazteko, kudeatzeko eta jarraipena egiteko.

– Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko hitzarmena, «2022ko martxoa Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien plana» onartzen duena. Gobernu Idazkaritzaren eta Parlamentuaren Harremanen zuzendariaren 2022ko apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitara zen (2022ko apirilaren 13ko EHAA, 74. zenbakia).

3.– Halaber, erakunde onuradunek derrigorrez bete beharko dituzte dirulaguntza ematen duen administrazioak eta gainerako autoritate nazional eta europar eskudunek ezar ditzaketen arauak, bai eta adierazitako finantzaketaren jatorria dela-eta, dirulaguntza horien onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak ere.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (aurrerantzean, DBLO), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO) eta datu pertsonalak babesteko gainerako araudi aplikagarrian ezarritakoarekin bat etorri, jakinarazten da emandako datuak SPRIk tratatuko dituela eta haren Tratamendu Jardueren Erregistroan sartuko direla.

Tratamendu horren helburua da, deialdiaren interes publikoan eta parte hartzeko eskabidean oinarritua, eskatutako laguntzaren espedientea kudeatzea. Datu pertsonalak tratatzeko oinarri juridikoa da SPRIk duen interes publikoa, SPRI Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia sortzeko estatutuetan ezarritako helburuak betetzeko.

Informazio hori gaian eskumena duen administrazio publikoari eta SPRI Taldeko enpresei laga ahal izango zaie.

Laguntza emateko espedientea izapidetzen den bitartean eta legez eska daitekeen epean gordeko dira datuak, legezko betebeharrak bete ahal izateko.

Interesdun guztiek eskubidea izango dute datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, datuen eramangarritasunari aurka egiteko edo tratamendu automatizatuan soilik oinarritutako erabaki baten xede ez izateko, bai eta datuak babesteko araudi aplikagarrian

2024ko irailaren 2a, astelehena



aurreikusitako beste edozein eskubide ere, eskubide horiek aplikagarriak direnean, honako helbide elektronikoa honetara idatziz bidalita: lopd@spri.eus Era berean, interesdunak Datuak Babesteko gure ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango dira, idatzizko komunikazioaren bidez, helbide elektronikoa honetan: dpd@spri.eus

Era berean, interesdun orok du edozein erreklamazio aurkezteko eskubidea dagokion kontrol-agintaritzan, eta SPRIren kasuan, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa izango da: www.avpd.eus

SPRIk Datu Pertsonalen Babeserako esparruan egiten duenaren inguruko informazio gehigarriaren eta xehekatuaren berri izateko, jo <https://agenda.spri.eus/es/aviso-legal/privacidad/> web-orrialdeko pribatutasun-politikara.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak oinarri hauei buruz hartzen dituen erabaki guztiak administratiboak dira eta, beraz, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa da jurisdikzio eskuduna.

Bilbao, 2024ko abuztuaren 6a.

SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
AITOR URZELAI INZA.



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



GRUPO
spri
TALDEA

I. ERANSKINA

C15.I2 inbertsioa exekutatzeke baldintza espezifikoak.

a) Erabiltzen diren ekipoek kontsumo energetikoarekin lotutako baldintzak bete beharko dituzte, energiarekin lotutako produktuentzat, zerbitzariarentzat eta datu-biltegitratzaileentzat, edo ordenagailuentzat eta ordenagailuen zerbitzariarentzat edo pantaila elektronikoentzat aplikagarriak diren diseinu ekologikoaren baldintzak ezartzeko esparrua finkatzen duen 2009ko urriaren 21eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/EC Zuzentarauaren arabera. IT azpiegiturak instalatzeko, datu-zentroen efizientzia energetikoari buruzko Europako jokabide-kodearen bertsiorik berriena edo «Datu-zentroetako instalazioek eta azpiegiturak - 99-1 zatia: kudeaketa energetikorako gomendatutako jarduketak» CENCENELEC CLC TR50600-99-1 dokumentuan ezarritakoa jarraitu beharko da.

b) Arrisku klimatikoaren eta IT azpiegituren instalazioen kalteberatasuna ebaluatuko dira eta, hala badagokio, kasu bakoitzerako egokitzapen-soluzio egokiak ezarriko dira.

c) Uraren kalitatea bermatzearekin eta estres hidrikoa prebenitzearekin lotutako ingurumenaren narriadura-arriskuak identifikatu eta jorratuko dira, uraren egoera ona eta potentzial ekologiko ona lortzeko, inbertsio jasangarriak sustatzeko esparrua ezartzeari buruzko eta 2000ko urriaren 23ko Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2000/60/CE Zuzentarauaren araberrako (EB) 2019/2088 Erregelamendua aldatzeko 2020ko ekainaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 2. artikuluan (22 eta 23. puntuetan) definitzen den moduan. Halaber, ura erabiltzeko eta babesteko kudeaketa-plana egin beharko da eta kaltetutako balizko uraren masaren edo masen arabera garatu beharko da, interesatutako aldeekin kontsultatu ondoren. Neurri honen barruan dauden jarduketak ezartzeko baldintza izango da hidrologia aldatzen ez duten azpiegiturak ez egitea.

d) Erabilitako ekipoek ezinbestean bete behar dituzte zerbitzariarentzako eta datuen biltegitratzaileentzako, edo ordenagailu eta ordenagailuen zerbitzariarentzako edo pantaila elektronikoentzako 2009ko urriaren 21eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/CE Zuzentarauaren efizientzia baldintzak. Ekipoek ezingo dute izan aparatu elektrikoetan eta elektronikoetan substantzia arriskutsu jakin batzuk erabiltzeko murrizketei buruzko 2011ko ekainaren 8ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/65/UE Zuzentarauaren II. eranskinen zerrendatutako substantziarik, material homogeneoen kontzentrazioak eranskin horretan zerrendatutakoa gainditzen ez badu salbu. Bere bizitza erabilgarriaren amaieran, ekipoa berrerabiltzeko, berreskuratzeko edo birziklatzeko operazioetarako prestatuko da edo tratamendu egokia egingo zaio, fluxu guztiak kentzea barne. Halaber, aparailu elektriko eta elektronikoei buruzko 2012ko uztailaren 4ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/19/UE Zuzentarauaren VII. eranskinaren araberrako gaikako tratamendua egin beharko da. Inbertsio honetan aurreikusita zeuden eta sortu diren arriskutsuak ez diren eraikuntzako eta eraisketako hondakinen ehuneko 70 gutxienez (pisutan) (2000/532/EC Erabakiak ezarritako hondakinen Europako zerrendako 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala kenduta) berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da. Tartean, beste material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliz betetze-operazioak egingo dira, hondakinen hierarkiaren eta EBko eraikuntzako eta eraisketako hondakinen kudeaketa-protokoloaren arabera.

Kalte esanguratsurik ez sortzeko printzipioaren baldintza espezifikoak (DNSH).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta bere garapen-araudian xedatutakoa betetzeko betebeharrean sartzen da ingurumenen kalte handirik ez eragitearen printzipioa izenekoa (DNSH printzipioa, «Do No Significant Harm» ingelesezko siglengatik).



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO PARA LA TRANSICIÓN DIGITAL Y EL RETO DEMOGRÁFICO



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



EUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, TRENTARIO
BERRESKURTZE ETIK
JASANGARRITASUN SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN TECNOLÓGICA Y
DESARROLLO SOSTENIBLE



GRUPO
spri
TALDEA

Horregatik, dirulaguntzaren onuradunak aurreikusi beharko ditu proiektuaren diseinuaren eta exekuzioaren fase guztietan jarraian ageri diren baldintza espezifikoak betetzeko mekanismoak. Baldintza horiek lotuta daude inbertsio jasangarriak sustatzeko esparrua ezartzeari buruzko eta (UE) 2019/2088 Erregelamendua aldatzeko 2020ko ekainaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluan jasotako ingurumeneko helburu bakoitzarekin:

Ingurumeneko helburua	Baldintza espezifikoa
<p>Klima-aldaketa arintzea. Neurriak berotegi-efektuko gas asko isurtzea aurreikusi da?</p>	<p>Erabilitako ekipoen eta osagarrien fabrikatzaileak, sareko operadoreak eta/edo sareko zerbitzuen hornitzaileak banda zabaleko ekipoen kontsumo energetikoari buruzko Europako jokabide-kodera atxiki dira. Edo onuradunak frogatzen du ekipoetan eta instalazioetan efizientzia energetikoari buruzko jarduketa esanguratsuak ezartzeko ahalegin handiak egin dituela.</p>
<p>Klima-aldaketara egokitzea. Neurri horrekin egungo ingurumen-baldintzek eta etorkizunean aurreikusten direnek ingurumenean, pertsonengan, naturan edo aktiboetan izango dituzten aurkako eraginak handitzea espero da?</p>	<p>Banda zabal ultralastera hedatzeko azpiegituren instalazioak diseinatzeko eta eraikitzeko unean onuradunak bero-boladen arrisku klimatikoak murrizteko egokitzapen-soluzioak gehituko ditu eta operazioekin hasi aurretik aplikatuko ditu.</p>
<p>Baliabide hidrikoen eta itsasokoen erabilera jasangarria eta babesa. Neurria kaltegarria izatea espero da: (i) ur-masen egoera onerako edo potentzial ekologiko onerako, lurrazpiko eta gainazaleko urentzako barne; edo (ii) itsasoko uren ingurumeneko egoera onerako?</p>	<p>Proiektuan ez dira hidrologia alda dezaketen azpiegituren jarduketak gehituko.</p>
<p>Ekonomia zirkularerako trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne. Neurriaren ondorioz (i) hondakinak sortzea, erretzea edo ezabatzea areagotuko da (birziklatu ezin diren hondakin arriskutsuak erretzea kenduta)? Edo (ii) neurri egokiek minimizatu ezin diren efizientzia falta handiak izango dira bizi-zikloaren edozein fasetako baliabide naturalen erabilera zuzenean edo zeharkakoan? Edo (iii) ingurumenarentzat kalte esanguratsua eta epe luzekoa eragingo du ekonomia zirkularri dagokionez?</p>	<p>Ekipoek ezingo dute izan 2011/65/UE Zuzentarauaren II. eranskinean zerrendatutako substantziarik, material homogeneousen kontzentrazioak eranskin horretan zerrendatutakoa gainditzen ez badu salbu. Bere bizitza erabilgarriaren amaieran, ekipoa berrerailetzeko, berreskuratze edo birziklatzeko operazioetarako prestatuko da edo tratamendu egokia egingo zaio, fluxu guztiak kentzea eta 2012/19/UE Zuzentarauaren VII. eranskinaren arabeko gaikako tratamendua barne. Hondakinen kudeaketarako plan bat dago ekipo elektrikoaren eta elektronikoen bizi erabilgarriaren amaieran birziklapena ahalik eta gehien bermatzeko.</p>
<p>Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola. Neurriarekin atmosferara, uretara edo lurzorura igorritako isurpen kutsatzaileak asko handitzea espero da?</p>	<p>Obraren fasean zehar zarata, hautsa eta isurpen kutsatzaileak murrizteko neurriak ezarriko dira eta neurri horrekin lotutako jarduketak exekutatu dira, betiere lurzoruen eta uraren balizko kutsadurari dagokionez indarrean dagoen araudi aplikagarria betez.</p>
<p>Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta leheneratzea. Neurria (i) ekosistemen baldintza onen eta erresilientziaren kalterako izatea espero da? Edo (ii) habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraren kalterako izatea espero da, batez ere Batasunerako interesekoak diren horien kasuan?</p>	<p>IT azpiegituren instalazioek ekosistemen baldintza onetan eta erresilientzian, zein habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeran eragin negatiborik ez izatea bermatuko da, zehazki, babestutako eremuen Natura 2000 Sarearen, Unescoko Mundu Ondarearen eta babestutako beste eremu batzuetan dauden intereseko espazioetan. Horregatik, derrigorrezkoa denean, Ingurumeneko Inpaktuaren Ebaluazioa egingo du 2011/92/EU Zuzentarauan ezartzen den moduan.</p>



II. ERANSKINA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDU NORMALIZATUA

[Izen-abizenak] jaunak/andreak, [...] zenbakidun NANA indarrean duenak, [sozietate eskatzailearen izena] ordezkatzeko du, [...] IFZ zenbakia duena eta egoitza soziala [helbidea] helbidean duena, eta adierazten du:

I. Programa honen xede den laguntza jasotzeko indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituela; zehazki, honakoak:

- Aurreko hiru urteetan ez dituela jaso, de minimis laguntza gisa, 300.000 euro baino gehiago.
- Eskaera honi dagokion atalean alderdi hauei buruzko informazioa jasota dagoela:

a) Aurreko hiru urteetan jasotako de minimis laguntzak, bertan adierazi behar da laguntza hori noiz eman zen, zer erakunde eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

b) Proiektu hori bera gauzatzeko beste erakunde publiko zein pribatu batzuei eskatutako edo/eta haiek emandako dirulaguntzak, bertan adieraziz laguntza hori noiz eskatu zen, eta, hala badagokio, zein organismok eman zuen, zein programaren baitan eta laguntzaren zenbatekoa.

– Programaren oinarrien 5. artikuluko 3. atalean aurreikusitako egoeraren batean ez dagoela, hau da:

a) Sektore publikoren batekoak izatea edo sektore publikoaren parte izatea, aplikagarriak diren sailkapen instituzionalerako arauen arabera.

b) DEALen 13. artikuluan edo 2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusten den egoeraren batean egotea, aplikagarria den heinean.

c) Europako Batzordeak laguntza bat legez kanpoko delat edo barne-merkatuarekin bateraezina delat erabaki ondoren, laguntzak errekuperatzeko agindu baten menpe egotea.

d) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatu edo egitea barne, trans pertsonen berdintasun erreal eta eragingarrirako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen arabera.

e) 1. lerroaren kasuan soilik, ez betetzea merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak aurreikusten dituen ordainketa-epeak.

– Adierazpen honek barne hartzen duela, Programaren oinarrietako 18. artikuluan adierazitakoa betez, eskatzailearen konpromisoa enpresa ez deslokalizatzeko (DEALen 49. artikuluan jasotako baldintzen arabera) eta gehiegizko finantzaketarik ez egiteko (DEALen 9.4.h) artikulua arabera).

II. I. atalean egindako adierazpena betetzen dela ziurtatzen duen dokumentazioa duela eta Administrazioaren esku jarriko duela hark eskatutakoan; eta aurrez aipatutako betebeharrak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela, haren eskubidearen aitortzari edo egikaritzeari dagokion denbora-tartean zehar.

III. Badakiela Adierazpen honi laguntzen dion edo Adierazpenaren barruan agertzen den datu, adierazpen edo dokumenturen bat guztiz zuzena ez bada, faltsua bada edo hutsak baditu (modu esanguratsuan) edo horiek Administrazio eskudunaren aurrean aurkezten ez badu, ezingo duela eraginpeko eskubidea edo jarduera gauzatu, gertakari horien berri izaten den unetik bertatik; gainera, dagozkion erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak ezarriko zaizkio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera.

[...]Goian jasotako adierazpenen edukiaren onarpena.

2024ko irailaren 2a, astelehena



III. ERANSKINA

BEEP-REN JARDUKETAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ DATUAK LAGATZEKO ETA TRATATZEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak, bere izenean edo _____ -(r)en ordezkartzan (kontratista/onuraduna), _____ IFKrekin (kontratatzena/onuradunarena), eta _____ zerga-helbidearekin, BEEPtik eratorritako baliabideekin finantzaturako dirulaguntzen onuraduna izanik, eta « _____ » XX Osagaien definitutako helburuak lortzeko beharrezko jarduketak garatzeko kontratista/azpikontratista/onuradun gisa, adierazten du aplikagarria zaien araudia ezagutzen duela, eta bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/41 Erregelamenduaren 22. artikuluko atal hauek:

1.– Artikuluaren 2. ataleko d) letra: «auditoria eta kontrola egiteko eta funtsen erabilerari buruzko datu alderagarriak izateko, Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan egindako erreformak eta inbertsio-proiektuak exekutatzeke neurri dagokienez, datu hauen kategoria harmonizatuak bildu eta sarbidea bermatu behar da:

a) Funtsen amaierako hartzailearen izena;

b) Kontratatzailearen eta azpi-kontratatzailearen izena, funtsen amaierako hartzailea Europar Batasuneko edo Estatuko eskubidearen araberrako botere esleitzaille bat denean, kontratazio publikoaren arloan;

c) Funtsen hartzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (26) (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuan definitzen denaren araberr;

d) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan Erreformak eta Inbertsio Proiektuak egiteko neurrien zerrenda eta neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa, Mekanismoaren esparruan eta Batasunaren beste funts batzuetan ordaindutako funtsen zenbatekoa adieraziz».

2.– 3. atala: «Artikulu honetako 2. atalaren d) letran aipaturako datu pertsonalak soilik tratatuko dituzte estatu kideek eta Batzordeak, aurrekontuaren kudeaketa onartzeko dagokion auditoriazaren eta 15. artikuluen (2. eta 23. atalak eta 1. atala) adierazitako akordioak aplikatzearekin lotutako funtsak erabiltzearen gaineko kontrol-prozeduren ondorioetarako eta horiek irauin bitartean. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, EBFTren 319. artikuluen araberr, mekanismo horretarako txostenak aurkeztu beharko dira finantza-informazioari eta kontuak emateari buruz, Erregelamendu Finantzarioaren 247. artikuluen eta, zehazki, urteko kudeaketa- eta errendimendu-txostenak adierazten duen moduan».

Azaldutako esparru juridikoaren araberr, adierazten du datuak aipaturako artikuluetan adierazitako helburuetarako soilik tratatu eta lagako dituela.

_____ (e)an, 20__ (e)ko _____ (a)ren ____ (e)an.

Sinatuta:

2024ko irailaren 2a, astelehena

Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEUGOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO
PARA LA TRANSFORMACIÓN DIGITAL
Y DE LA FUNCIÓN PÚBLICAPlan de Recuperación,
Transformación y ResilienciaEUSKO JAURLARITZA
INDUSTRIA, TRANTZERIO
ERREKURTZE ETX
JASANGARITZAREN SALAGOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y ENERGÍAGRUPO
spri
TALDEA

IV. ERANSKINA

BEEP-REN JARDUKETAK GAUZATZEARI DAGOKIONEZ KONPROMISOA ADIERAZTEKO
EREDUA

_____ jaunak/andreak, bere izenean edo
_____-(-r)en ordezkartzan (operadore ekonomikoa), _____ IFK
zenbakiarekin (operadore ekonomikoarena).

_____ espediente-zenbakia duten dirulaguntzen lizitazio/deialdi prozedurari dagokionez,
hau adierazten du:

Lehenengoa.– Arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeko estandarrik zorrotzenak betetzeko konpromisoa hartzen duela, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta hautemateko beharrezko neurriak egokituz, eta, hala badagokio, hautemandako ez-betetzeak autoritate egokiei jakinaraziz.

Bigarrena.– BEEPren edukari dagokionez, konpromisoa hartzen duela ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak ekiditeko («DNSH», ingelesezko «do no significant harm» siglengatik) Plan horren barruan egindako jarduketak gauzatzean.

Hirugarrena.– Ez dagoela finantza bikoitzik eta, hala badagokio, Estatuko dirulaguntzen erregimenarekin bateraezintasun-arriskurik.

_____ (e)an, 20__ (e)ko _____ (a)ren ____ (e)an.

Sinatuta:

2024ko irailaren 2a, astelehena



V. ERANSKINA

INGURUMENARI KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO ERANTZUKIZUNPEKO
ADIERAZPENAREN EREDUA (DNSH PRINTZIOA)

_____ jaunak/andreak, bere izenean edo
_____-ren ordezkaritzan (operadore ekonomikoa), _____ IFK
zenbakiarekin (operadore ekonomikoarena).

_____ espediente-zenbakia duten dirulaguntzen lizitazio/deialdi prozedurari dagokionez,
hau adierazten du:

Lehenengoa.– Baldintza hauek betetzen dituela.

1.– Garatutako jarduerak ez dute kalte esanguratsurik eragiten ingurumen-helburu hauetan, (EB) 2020/852 Erregelamenduak (ingurumeneko jarduera ekonomiko jasagarrien sailkapen-sistema — edo «taxonomia»— bat ezarriz inbertsio jasagarriak egitea sustatzen duenak) 17. artikuluan ezarritakoaren arabera:

Klima-aldaketa arintzea.

Klima-aldaketara egokitzea.

Baliabide hidrikoen eta itsasokoen erabilera jasagarria eta babesa.

Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.

Atmosferaren, uraren edo lurzorua kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.

Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta berreskuratzea.

2.– Osagaiaren Neurriarentzako eta Azpi-neurriarentzako finkatu diren eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean islatzen diren ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira jarduerak.

3.– Proiektuan garatzen diren jarduerak aplikagarria den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.

4.– Garatzen diren jarduerak ez daude Planaren finantzaketatik salbuetsita, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa aplikazioari buruzko gida teknikoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Exekuzio Erabakiaren proposamenari eta bere eranskinari dagokionean.

5.– Garatzen diren jarduerak ez dute eragin zuzenik ingurumenean ezta lehen mailako zeharkako eraginik ere bizi-ziklo osoan. Eragin horiek dira jarduera egin eta gero gauzatu daitezkeenak.

Bigarrena.– Adierazpen honetan ezarritako baldintzetako bat betetzen ez bada, badakiela eta onartzen duela jasotako kopuruak eta dagozkion atzerapen-interesak itzuli beharko dituela.

_____ (e)an, 20__ (e)ko _____ (a)ren ____ (e)an.

Sinatuta:

2024ko irailaren 2a, astelehena



VI. ERANSKINA

IRUZURRAREN AURKAKO POLITIKA EZAGUTZEN DUELA ETA ATXIKI EGITEN DELA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak, bere izenean edo _____
-ren ordezkartzan

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– Iruzurraren aurkako neurrien plan propio bat duela, bat datorrena Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduan, 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan, Esku Hartze Orokorren eta Zerbitzu juridikoen MRRen arloko gomendioetan, erakunde publikoetako kontrol-organo baliokideetan eta EBk iruzurraren aurkako arloan ezarritakoarekin.

Bestela, 2022ko martxoaren 29ko Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onartutako «Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako, interes-gatazkako, finantzaketa bikoitzeko eta estatu-laguntzetako eta ingurumen-kalte ez-nabarmeneko baldintzak betetzeko neurrien planari» atxikitzen zaie.

Bigarrena.– Iruzurraren aurkako politikaren edukia eta horri dagokionez ezartzen diren betebeharrak ezagutzen dituela, eta ahalik eta publiziterik handiena emateko konpromisoa hartzen duela.

Hirugarrena.– Iruzurraren aurkako borrokaren arloan Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiteko bitartekari izendatzen duela _____ jauna/andrea.

_____ (e)an, 20__ (e)ko _____ (a)ren ___ (e)an.

Sinatuta:

2024ko irailaren 2a, astelehena



VII. ERANSKINA

TITULARTASUN ERREALAREN GAINEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak, _____ NAN zenbakiarekin, _____ IFK zenbakia eta _____ zerga-helbidea duen _____ erakundearen titularra/ordezkaria izanik, BEEPtik datozen baliabideen hartzailea da _____ izeneko (deialdiaren izena) jarduketaren esparruan eta hau

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa.– 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Agindua 8. artikuluan xedatutakoa ezagutzen duela, funtsen azken hartzailearen identifikazioari buruzko informazioa eman behar izateko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.d) artikulua eskakizuna betetzeko: funtsen hartzailearen izen-abizenak eta titular errearen jaiotze-data, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan titular erreala definitzen den moduan.

Bigarrena.– Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan ezarritakoaren arabera, titular errealak hauek dira: azken buruan bezeroaren jabetza edo kontrola duen pertsona fisikoak, edo transakzioa edo jardura egin zaien pertsona fisikoak. Hauek dira:

Titulartasun erreala				
Bazkidearen edo akziodunaren izen osoa	NAN/AIZ/Pasaportea	Nazionalitatea edo helbide soziala	Jaiotza-data	Parte-hartzea (%)

Hirugarrena.– Hala eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzako erakunde exekutatuazileari titular erreala edo errealak egiaztatzen dituen notariotza-akta entregatu behar diola jakitea, esleipenduna edo azken hartzailea merkataritza-sozietate bat baldin bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta 2021eko irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan xedatutakoaren arabera.

_____ (e)an, 20__ (e)ko _____ (a)ren ___ (e)an.

Sinatuta:

Kargua:

2024ko irailaren 2a, astelehena



VIII. ERANSKINA

BIGARREN FINANTZAKETARIK EZ DAGOELA ADIERAZTEN DUEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

_____ jaunak/andreak, _____ NAN zenbakiarekin, _____ IFK zenbakia eta _____ zerga-helbidea duen _____ erakundearen titularra/ordezkaria izanik, BEEPTik datozen baliabideen hartzailea da _____ izeneko (deialdiaren izena) jarduketaren esparruan, eta bere erantzukizunpean adierazten du:

[...] Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzeko 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduan jasota ez dagoen Europar Batasuneko beste funtsik ez duela jaso, eta etorkizunean ez dela aurkeztuko Estatuko edo EBko aurrekontutik eratorritako beste edozein finantzaketa-funtsera.

Aurreko laukia hutsik utzi bada soilik jarraitu; hau da, proiektuak xede horretarako finantzaketa jaso badu edo etorkizunean beste edozein funtsetatik finantzaketa jasotzea espero badu:

[...] Dirulaguntzen esleipena arautzen duten oinarrietan ezarritako mugetara egokitzeko konpromisoa hartzen duela.

[...] Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko 2021eko irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikulua xedatzen duenaren arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko gastuen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen duela.

[...] Mekanismoak eta kudeaketarako gaitasuna dituela proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea bermatzeko.

[...] Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko 2023ko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32.5 artikulua arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatu ahal izateko egoki den dokumentazio justifikatzailea aurkezteko konpromisoa hartzen duela.

[...] Datu hauek identifikatzen dira:

Dirulaguntza publikoak: edozein administrazio edo erakunde publikotan xede berbererako emandako edo eskatutako dirulaguntzak.			
Administrazioa edo erakunde publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (€)
Eskatutakoa guztira: _____ €		Emandakoa guztira: _____ €	

_____ (e)an, 20__ (e)ko _____ (a)ren ____ (e)an.

Sinatuta:

Kargua:

2024ko irailaren 2a, astelehena



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



GRUPO
spri
TALDEA

IX. ERANSKINA

INTERES GATAZKARIK EZ DAGOELA BERMATZEN DUEN ADIERAZPENA

(HFP/1030/2021 Agindua).

Azpi-proiektua: (zenbakia eta izena)

Tresna juridikoa

Espedientea (zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Goian aipatutako prozeduraren inpartzialtasuna bermatze aldera, behean prozesuaren kudeaketan edo exekuzioan parte hartzen dutela sinatu dutenek hau adierazten dute:

Lehenengoa.– Informazioa dutela honakoei buruz.

1.– Europako Parlamentuko eta Kontseiluko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren (EBren Erregelamendu Finantzarioa) «Interes-gatazkak» izeneko 61.3 artikulua ezartzen duela «interes-gatazka egongo dela funtzioen gauzatze inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiako arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidetasun politikoagatik edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko beste edozein arrazoi zuzen edo zeharkakogatik».

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» izeneko 64. artikulua helburua dela kompetenziaren edozein lausotze ekiditea eta prozeduran gardentasuna bermatzea, eta hautagai eta lizitatzailerak guztien tratu-berdintasuna bermatzea.

3.– Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen «Abstenitzea» izeneko 23. artikulua ezartzen duela prozeduran ez dutela esku hartu behar «Administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean». Hauek dira:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandataritarako.

c) Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.

e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan.

2024ko irailaren 2a, astelehena



Bigarrena.– Hau adierazten dut:

1.– EBren Erregelamendu Finantzarioaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkarik ez dutela eta prozesuari eragin diezaiokeen Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan adierazitako abstentzio kasurik ez dagoela.

Hirugarrena.– Hau adierazten dut:

1.– Agertoki horretara eraman dezakeen edozein interes-gatazkaren edo abstentzio-arrazoiren berri emango diola, ahalik eta arinen, kontratazio-organoari/hautaketa-organoari.

2.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2007ko azaroaren 8ko 9/2007 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan jasota dauden prozedura horietan garatzen diren gaiak eta dokumentuak konfidentziasunez jorratuko dituela.

Laugarrena.– Hau adierazten dut:

1.– Badakidala interes-gatazkaren bat gezurra dela egiaztatzen bada, araudi aplikagarriak ezartzen dituen ondorio diziplinarioak/administratiboak/judizialak izango dituela.

(Eguna eta sinadura, izen osoa eta NANA).

2024ko irailaren 2a, astelehena



X. ERANSKINA

INTERES-GATAZKARIK EZ DAGOELA BERMATZEN DUEN ADIERAZPEN-EREDUA

(HFP/55/2023 Agindua).

Azpi-proiektua: (zenbakia eta izena)

Tresna juridikoa

Espedientea (zenbakia eta izena):

Onuradunaren izena, abizenak eta IFZ:

Kargua:

Izen-abizenak:

IFZ:

Goian aipatutako kontratazio-prozeduraren/dirulaguntza emateko prozeduraren inpartzialtasuna bermatze aldera, behean espedientearen prestaketan eta tramitazioan parte hartzen dutela sinatu dutenek hau adierazten dute:

Lehenengoa.– Honi buruzko informazioa izatea:

1.– Europako Parlamentuko eta Kontseiluko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren (EBren Erregelamendu Finantzarioa) «Interes-gatazkak» izeneko 61.3 artikulua ezartzen duela «interes-gatazka egongo dela funtzioen gauzatze inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiako arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politikoagatik edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko beste edozein arrazoi zuzen edo zeharkakogatik».

2.– 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikoan aplikatzen dituen Sektore Publikoko Kontratuak buruzko 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» izeneko 64. artikulua honela definitzen duela interes-gatazka: «kontratazio-organoarentzat lan egiten duten eta aldi berean lizitazio-prozeduran parte-hartze bat izan dezaketen edo haren emaitzan eragina izan dezaketen langileen edozein egoera, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna edo independentzia itxura batean zalantzatan jar dezakeena interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala zuzenean edo zeharka izateagatik».

3.– 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2022ko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren Xedapen Gehigarriaren 3. atalak hau ezartzen duela: «Interes-gatazkaren arriskuaren azterketa sistematiko eta automatizatu egitea dagokie kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko deskribatutako prozeduretan banaka edo elkargo-organoen bidez parte hartzen duten eta erabakiak hartzen dituzten erakundeak, erakunde exekutatuak eta instrumentalen zerbitzura dauden langile publikoei eta gainerako langileei».

4.– Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. atalak hau xedatzen duela:

– «Tresna informatikoaren bitartez aztertuko dira aurreko paragrafoan aipatutako pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezaketen interes pertsonal edo ekonomikoak duten balizko harreman familiar edo sozietate-lotura zuzenak zein zeharkakoak».

– «Harremanak edo loturak identifikatzeko, tresnak, besteak beste, 2021eko otsailaren 12ko (EB) 241/2021 Erregelamenduaren 22.2.d).iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealar buruzko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioaren Estatuko Agentziaren datu-basean ageri direnak eta Notariotza Elkargoekin eta Erregistratzaileekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak».

2024ko irailaren 2a, astelehena



Bigarrenena.– Adierazpen hau sinatzeko unean eta bere esku dagoen informazioaren arabera, ez dagoela dirulaguntzen lizitazio/esleipen prozedurari eragin diezaiokeen edozein interes-gatazkatan sartuta, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren atalean aurreikusitakoa betez.

Hirugarrenena.– Konpromisoa hartzen duela kontratazio-organoari/ebaluazio-batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, prozeduraren edozein unetan jakin eta gerta litekeen edozein interes-gatazkaren berri.

Laugarrenena.– Interes-gatazkaren bat gezurra dela egiaztatzen bada, badakiela araudi aplikagarriak ezartzen dituen ondorio diziplinarioak/administratiboak/judizialak izango dituela.

(Eguna eta sinadura, izen osoa eta NANA).